# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia | Iruñean, 1999ko otsailaren 23an | 12 ZK.


**A U R K I B I D E A**


G SAILA:

**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

—Erronkari Ibarreko Batzarreari eta udalei buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

—“Erronkari Ibarreko toki zerbitzu publikoak emateko gastuen arrazoizkotasun ekonomikoaren azterketa”ri buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (34. or.).

**G Saila:**
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

# Erronkari Ibarreko Batzarreari eta udalei buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 2an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Erronkari Ibarreko Batzarreari eta udalei buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## Erronkari Ibarreko Batzarre eta udalei buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

### AURKIBIDEA


**I.** Sarrera (2. or.).

**II.** Helburua (3. or.).

**III.** Norainokoa eta mugak (3. or.).

**IV.** Burgiko Udala (3. or.).

IV.1. Iritzia (3. or.).

IV.2.Finantza-egoerako orriak (5. or.).

IV.3. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (5. or.).

**V.** Gardeko Udala (7. or.).

V.1. Iritzia (7. or.).

V.2. Finantza-egoerako orriak (8. or.).

V.3. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (8. or.).

**VI.** Izabako Udala (10. or.).

VI.1. Iritzia (10. or.).

VI.2. Finantza-egoerako orriak (12. or.).

VI.3. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (14. or.).

VI.4. Gorabeherak (18. or.).

**VII.** Erronkariko Udala (18. or.).

VII.1. Iritzia (18. or.).

VII.2.Finantza-egoerako orriak (19. or.).

VII.3. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (19. or.).

**VIII.** Urzainkiko Udala (21. or.).

VIII.1. Iritzia (21. or.).

VIII.2.Finantza-egoerako orriak (22. or.).

VIII.3. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (23. or.).

**IX.** Uztarrozeko Udala (24. or.).

IX.1. Iritzia (24. or.).

IX.2. Finantza-egoerako orriak (25. or.).

IX.3. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (26. or.).

**X.** Bidankozeko Udala (28. or.).

X.1. Iritzia (28. or.).

X.2. Finantza-egoerako orriak (29. or.).

X.3. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (29. or.).

**XI.** Erronkari Ibarreko Batzarrea (31. or.).

XI.1. Iritzia (31. or.).

XI.2. Finantza-egoerako orriak (32. or.).

XI.3. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (32. or.).


### I. SARRERA

Erronkari Ibarra Nafarroako iparraldean dago, Iruñetik 90 kilometrotara. Hurrengo udalak daude ibar horretan: Uztarroze (283 biztanle), Izaba (542 biztanle), Urzainki (111 biztanle), Erronkari (365 biztanle), Garde (201 biztanle), Bidankoze (117 biztanle) eta Burgi (253 biztanle).

Zazpi herri horiek osatzen dute Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, eta Erronkari Ibarreko Batzarrea da Mankomunitate hori osatzen duten ondasun guztien ordezkari eta administrari egiazkoa.

Halaber, Ibarreko Batzarreak hartu du bere gain Izabako osasun eskualde oinarrizkoaren gizarte zerbitzua.

Horko udaletatik, batek ere ez du erakunde autonomo edo toki enpresarik; aitzitik, denak daude Ezka-Zaraitzuko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean eta Nafarroako Pirinioko Turismo Partzuergoan:

Eraginkortasun arrazoiengatik, eta ibarraren ikuspegi orokorra emateko asmoz, dokumentu bakarrean aurkeztu ditugu ibarra osatzen duten toki entitate guztiei dagozkien fiskalizazio txostena.

Ganbara honek beste txosten bat emango du, oraingo honen osagarri, ibarreko zerbitzu publikoen prestazioaren arrazoizkotasuna aztertzeko.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legeari, eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Ibarreko udalen eta Batzarre Nagusiaren 1997ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta gastuen eta dirusarreren aurrekontu-betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateei aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauek osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere –eta, bereziki, Erronkarri Ibarreko ordenantzek–.

Txostenaren helburua honako hauei buruz daukagun iritzia adieraztea da:

a) Ibarreko udalen eta Batzarre Nagusiaren 1997ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta betetzea.

b) 1997ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, ezartzeko diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Ibarreko udalen eta Batzarre Nagusiaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen ote zaion.

d) Ibarreko udalen eta Batzarre Nagusiaren finantza-egoera 1997ko abenduaren 31n.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK.

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, Ibarreko udalen eta Batzarre Nagusiaren fiskalizazioa burutu du, 1997ko ekitaldiari dagokiona.

Aurrekontu-kontabilitatean baino ez dute jasotzen Udalek bere eragiketak. Azpimarratzekoa da Izabako Udalak baduela indarretxearen zerbitzu ekonomiko udaleratua, bereizitako egoera-balantze eta galdu-irabazien kontuarekin. Ibarreko Batzarreak zor-hartzekoak dituen kontu batean jasotzen ditu egintza ekonomikoak, eta ez du gastu-dirusarreren aurrekonturik.

Ondorioz, dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak gainbegiratzeari lotu zaio lana, eta antolamendu, kontabilitate eta barne kontroleko alde batzuk aztertu dira.

Lana burutzeko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauei men egin diegu, eta beharrezkotzat jo ditugun froga guztiak aplikatu ditugu, baldintzen eta aurretik Ibarreko udalei eta Batzar Orokorrari bidali genion galdetegian azaldu diren arazoen arabera.

Kontabilitate orokorrik ezak muga ezarri dio Ibarreko udalen eta Batzar Orokorraren ondare-egoeraren azterketari.

Ibarreko udalen eta Batzar Orokorraren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditugu txostenean.

Zelaiko lana 1998ko ekain-uztailetan egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Ibarreko udalen eta Batzar Orokorraren langile guztiei, beraien lankidetzak gure lana erraztu egin duelako.

## IV. BURGIKO UDALA

### IV.1. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Burgiko Udalaren 1997ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa aztertu dugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako

arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

**IV.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionean.**

1997ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzearen egoerak nahiko ongi islatzen ditu fiskalizatutako ekitaldian Udalak burutu dituen eragiketak, salbuespen hauekin: aldi horretan izandako gastu batzuk ez dira kontabilizatu –626.121 pezeta–, eta baso-aprobetxamenduei dagozkien 9.362.017 pezetako dirusarrerak ere ez dira jaso.

**IV.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondareari buruzko kontabilitaterik ez dagoenez, eta 1993tik datorren udal-inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1997ko abenduaren 31n udalak zeukan ondare-egoerari buruz.

**IV.1.3. Legezkotasuna**

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz burutzen da, aurrekontu-alorreko arau-hauste batzuk agertu diren arren.

**IV.1.4. Finantza- eta ekonomia-egoera**

Burgiko Udalak finantza-egoera saneatua erakusten du 1997ko abenduaren 31n. Zorpetzea hutsaren hurrengoa da, eta ekitaldi bukaerako aurrezki garbia, 6,2 milioi.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa,** Burgiko Udalak:

• Egokiro kudeatzen ditu bere aurrekontuak, administrazioaren ikuspuntutik, baina hauek behar ditu:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreren sortzapen hatsapena zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

c) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko.

• Finantzaketaren ikuspuntutik, egoera saneatua du, erabat: hutsaren hurrengo zorpetzeari eta diruzaintza-gerakin handiari zor zaie.

IV.2 FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

1997ko ekitaldiko gastu-aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

| Gastuen kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen gastuak | 8.834.649 | 8.834.649 | 8.205.544 | 93 |
| 2. Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea | 7.545.206 | 7.545.206 | 5.106.878 | 68 |
| 3. Korrituak | 823.689 | 823.689 | 467.823 | 57 |
| 4. Ohiko transferentziak | 4.027.395 | 4.027.395 | 2.734.411 | 68 |
| 6. Inbertsio errealak | 74.148.000 | 74.148.000 | 2.732.140 | 4 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 879.287 | 879.287 | 879.287 | 100 |
| Gastuak, guztira | 96.258.226 | 96.258.226 | 20.126.082 | 21 |

| Dirusarreren kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Likidaturiko eskubideak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 3.550.000 | 3.550.000 | 3.602.010 | 101 |
| 2. Zeharkako zergak | 2.065.000 | 2.065.000 | 1.982.028 | 36 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 6.478.648 | 6.478.648 | 7.605.762 | 117 |
| 4. Ohiko transferentziak | 9.884.205 | 9.884.205 | 9.522.518 | 96 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 1.125.837 | 1.125.837 | 855.492 | 76 |
| 7. Kapital transferentziak | 61.155.739 | 61.156.739 | 3.080.382 | 5 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 3.000.000 | 3.000.000 | 548.818 | 18 |
| Dirusarrerak, guztira | 87.259.429 | 87.259.429 | 27.197.010 | 31 |

IV.3 IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

**IV.3.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak**

1997ko ekitaldirako gastu-aurrekontuak 96 milioi jotzen duten gastu-kredituak ditu, hasieran. Dirusarreren aurreikuspenek 87 milioi aipatu dituzte. 1997ko martxoaren 12an onetsi zituen aurrekontuak Osoko Bilkurak. Aurrekontua orekatzeko, gastu-dirusarreren erresultak daude: 12 eta 3 milioi, hurrenez hurren. Ez dute aurrekontu-aldaketarik egin, ekitaldian zehar.

Aitorturiko betebeharrek 20 milioi egiten dute, eta ehuneko 21eko betetze-maila. Inbertsio errealen kapituluaren betetze-maila ehuneko 4 dela azpimarratu behar da, eta hainbat obraren esleipenaren atzerapenari zor zaio.

Hona osaketa, portzentaien arabera:

| Gastuak | Portzentaia |
|---|---|
| Funtzionamendukoak | 80 |
| Inbertsiokoak | 13 |
| Finantza-zamakoak | 7 |
| Guztira | 100 |

Ageri denez, funtzionamendu gastuak guztizko gastuen ehuneko 80 dira; are gehiago, langileen gastuek guztizko gastuaren ehuneko 41 egiten dute, 8,2 milioiko zenbatekoarekin. Hona Udaleko langileak, 1997ko abenduaren 31n:

• Idazkaria (funtzionarioa), Garden eta Bidankozen ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea, lan kontratukoa, lanaldiaren zati baterako.

• Gizarte-enplegu babestuko langilea, aldi baterako, lanaldiaren zati baterako.

Ekitaldian likidatu diren eskubideak 27 milioi pezeta dira: ohiko transferentziak, 9,5 milioi; tasak eta bestelako dirusarrerak, 7,6 milioi.

Betetze-mailari bagagozkio, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 31 jo dute inbertsioek. Betetze-maila apal hori, kapital transferentzien kapituluaren betetze-mailari zor zaio: ehuneko 5. Tributu-dirusarreren betetze-maila ehuneko 107 da.

Hona dirusarreren osaketa, portzentaien arabera:

| Dirusarrerak | Portzentaia |
|---|---|
| Tributuzkoak | 49 |
| Ohiko transferentzietakoak | 46 |
| Ondarekoak | 5 |
| Guztira | 100 |

1997ko ekitaldiak 7 milioi pezetako aurrekontu-emaitza positiboa du, erresultak kontuan izan gabe.

1997ko abenduaren 31n, ez dira ordaindu gabeko kopuruak aintzat hartu, eta kobratzeke dauden onetsitako eskubideek 119.783 pezeta egiten dute: 74.027 pezeta, itxitako ekitaldiei dagozkie; gainerakoa, aldiz, 1997an likidatu diren tributu-kontzeptuei.

**IV.3.2. 1997ko abenduaren 31ko finantza-egoera**

Finantza-egoera erabat saneatua erakusten du Burgiko Udalak 1997ko abenduaren 31n.

Ondoren jarriko ditugu hainbat ratio eta magnitude, egoera ekonomikoa erakustearren:

| Ratio eta magnitudeak | 1997 |
|---|---|
| Aurrekontu-emaitza | 7.070.928 PTA. |
| Aurrezpen gordina (1) | 7.520.977 PTA. |
| Aurrezpen garbia (2) | 6.173.868 PTA. |
| Zorpetze maila (3) | %6 |
| Zorpetze muga (4) | %32 |
| Biztanleko gastu publikoa | 79.550 PTA. |
| Biztanleko inbertsio-gastuak | 10.799 PTA. |
| Biztanleko tributu-dirusarrerak (5) | 52.134 PTA. |
| Dirulaguntzekiko menpekotasuna (6) | %46 |
| Gastu guztien % zenbat dira langile gastuak | %41 |
| Gastu guztien % zenbat dira inbertsio gastuak | %13 |
| Gastu guztien % zenbat da finantza-zama | %7 |

1) Ohiko dirusarrerak - funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarreren 1. eta 5. kapituluen bitartekoak, eta funtzionamendu gastutzat, gastuen 1., 2. eta 4. kapituluak.

2) Aurrezpen gordina - finantza-zama. Finantza-zamatzat hartu dugu gastuen 3. eta 9. kapituluen batuketa.

3) Finantza-zama / ohiko dirusarrerak x 100

4) Aurrezpen gordina / ohiko dirusarrerak x 100

5) Tributu-dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapituluak) / biztanle kopurua.

6) Transferentzien ondoriozko dirusarrerak (4. eta 7. kapituluak) / dirusarrerak.

1997ko abenduaren 31ko finantza-egoeraz, berriz:

| Adierazleak | 1997 |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina | 16.171.879 |
| Fondo likidoak | 16.052.096 |
| + Kobratzeke dagoena | 119.783 |
| – Ordaintzeke dagoena | 0 |
| Epe luzeko zorra | 984.805 |

Aurrekontuaren emaitza doitua eta aurrezki garbia erabat positiboak dira: 7 eta 16 milioi, hurrenez hurren.

Zorpetze-maila zorpetze-muga baino askoz apalagoa da: ehuneko 6 inguru.

Diruzaintzako gerakina positiboa da –16 milioi–, eta beste diruiturri bat da 1998ko aurrekontuari begira.

Azkenik, Nafarroan 1.000 biztanletik behera zuten udalen 1996ko batez bestekoarekin konparatuz gero, hurrengo laukia ateratzen da:

| Ratioa | 1.000 bizt. beherako udalen 1996ko batez bestekoa | Burgi, 1997 |
|---|---|---|
| Biztanleko ohiko gastua | 55.736 | 65.275 |
| Biztanleko ohiko inbertsioae | 80.739 | 93.153 |
| Biztanleko tributu-dirusarrera | 48.838 | 52.134 |
| Zorpetze-muga | 35 | 32 |
| Zorpetze-maila | 10 | 6 |

**IV.3.3. Kudeaketa-gomendioak**

Ondoren jarriko ditugu kudeaketa-arlo esanguratsuenei buruzko gomendio nagusiak, Ganbararen ustez Udalak onetsi beharko lituzkeenak, zertarako-eta antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

**Aurrekontuak eta kontabilitatea**

*• Kontabilitate-sistemak hobetzea, informazio osoa eduki eta udal-jardunaren jarraipen hobea egin ahal izateko.*

*• Indarreko legediak ezartzen dituen epeak betetzea aurrekontuak onesteko.*

*• Gastu-dirusarreren aurreikuspen orekatua egitea.*

*• Kontabilitate hatsapenak zorrotz erabiltzea, ekitaldi-itxieran, batez ere.*

**Inbentarioa eta ondarea**

*• Udal inbentarioa eguneratzea, ez baitute 1993tik eguneratu.*

*• Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emango duten prozedurak taxutu eta erabiltzea.*

*• Ondare higiezin ororen errentamendua dagokion kontratuarekin eustea.*

**Langileak**

*• Langileen Gizarte Segurantzaren atxikipena eta ordainketa aurrekontutik kanpo kontabilizatzea; enpresarioen kuota, aldiz, 1. Kapituluan, Udalaren gastu gisa.*

**Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea.**

*• Udalean zerbitzuak ematen ari diren langileekiko harremana formalizatzea, zerbitzu-errentamenduaren kontratuaren bidez, eta ordainagiriak eskatuz, behar bezalako baldintzekin. (Garbitzaileak, uhal-ikastaroko irakaslea).*

*• BEZari buruzko erregelamendua betetzea, ordainagirietan zenbakia, data eta hornitzailearen eta Udalaren IFZ jasotzea.*

**Inbertsioak.**

*• Zuinketa-aktak egitea eta bideragarritasunziurtagiriak eskatzea, proiektu guztietan.*

*• Kredituak badirela egiaztatzeko agiriak luzatzea.*

*• Inbertsioetarako baldintzen orrietan ezartzen diren betetze-epeak betetzen direla zorrotz jarraitzea.*

**Tributu dirusarrerak**

*• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldeak; horretaz gain, dagokion argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.*

*• Oihan-aprobetxamenduen zenbatekoa honela kontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren unean.*

*• Zerga-ordenantzak zer ekitalditan sartuko diren indarrean, ekitaldi horren urtarrilaren 1a baino lehenago argitaratzea.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## V. GARDEKO UDALA

### V.1. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Gardeko Udalaren 1997ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa aztertu dugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

**V.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionean.**

1997ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzearen egoerak nahiko ongi islatzen ditu fiskalizatutako ekitaldian Udalak burutu dituen eragiketak, salbuespen hauekin: aldi horretan izandako gastu batzuk ez dira kontabilizatu –600.441 pezeta–, eta baso-aprobetxamenduei dagozkien 11.932.154 pezetako dirusarrerak ere ez dira jaso.

**V.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondareari buruzko kontabilitaterik ez dagoenez, eta 1993tik datorren udal-inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1997ko abenduaren 31n udalak zeukan ondareegoerari buruz.

**V.1.3. Legezkotasuna**

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz burutzen da, aurrekontu-alorreko arau-hauste batzuk agertu diren arren.

**V.1.4. Finantza- eta ekonomia-egoera**

Gardeko Udalak finantza-egoera saneatua erakusten du 1997ko abenduaren 31n. Zorpetzea hutsaren hurrengoa da, eta ekitaldi bukaerako aurrezki garbia, 10,5 milioi.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa,** Gardeko Udalak:

• Egokiro kudeatzen ditu bere aurrekontuak, administrazioaren ikuspuntutik, baina hauek behar ditu:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreren sortzapen hatsapena zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

c) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko.

• Finantzaketaren ikuspuntutik, egoera saneatua du, erabat: hutsaren hurrengo zorpetzeari eta diruzaintza-gerakin handiari zor zaie.

V.2 FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

1997ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

| Gastuen kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen gastuak | 4.107.135 | 4.107.135 | 3.844.486 | 94 |
| 2. Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea | 9.726.000 | 9.726.000 | 6.167.717 | 63 |
| 3. Gastos financieros | 947.359 | 947.359 | 947.359 | 100 |
| 4. Ohiko transferentziak | 4.825.000 | 4.825.000 | 4.078.256 | 85 |
| 6. Inbertsio errealak | 49.318.800 | 49.318.800 | 3.323.705 | 7 |
| 7. Kapital transferentziak | 1.000.000 | 1.000.000 | 989.593 | 99 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 1.069.678 | 1.069.678 | 1.069.678 | 100 |
| Gastuak, guztira | 70.993.972 | 70.993.972 | 20.420.794 | 29 |

| Dirusarreren kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Likidaturiko eskubideak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 1.804.718 | 1.804.718 | 1.723.261 | 95 |
| 2. Zeharkako zergak | 963.968 | 963.968 | 868.504 | 90 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 22.246.000 | 22.246.000 | 14.708.276 | 66 |
| 4. Ohiko transferentziak | 4.900.300 | 4.900.300 | 5.362.288 | 109 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 3.948.082 | 3.948.082 | 3.993.610 | 101 |
| 7. Kapital transferentziak | 21.130.904 | 21.130.904 | 1.979.020 | 9 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | — | — | 251.315 | — |
| Dirusarrerak, guztira | 54.993.972 | 54.993.972 | 28.886.274 | 53 |

V.3. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

**V.3.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak**

1997ko ekitaldirako gastu-aurrekontuak 71 milioi jotzen duten gastu-kredituak ditu, hasieran. Dirusarreren aurreikuspenek 55 milioi aipatu dituzte. 1997ko apirilaren 22an onetsi zituen aurrekontuak Osoko Bilkurak. Aurrekontua orekatzeko, dirusarreren erresultak daude: 16 milioi. Ez dute aurrekontu-aldaketarik egin, ekitaldian zehar.

Aitorturiko betebeharrek 20,4 milioi egiten dute, eta ehuneko 29ko betetze-maila. Inbertsio errealen kapituluaren betetze-maila ehuneko 7 dela azpimarratu behar da: aurrekontuan 49 milioi sartu baziren ere, 3,3 milioi jotzen duten gastuak baino ez dira aitortu.

Hona osaketa, portzentaien arabera:

| Gastuak | Portzentaia |
|---|---|
| Funtzionamendukoak | 69 |
| Inbertsiokoak | 21 |
| Finantza-zamakoak | 10 |
| Guztira | 100 |

Ageri denez, funtzionamendu gastuak guztizko gastuen ehuneko 69 dira; izan ere, inbertsio gutxi egin da urtean, aurreko atalean iruzkindu bezala.

Hona Udaleko langileak, 1997ko abenduaren 31n:

• Idazkaria (funtzionarioa), Burgin eta Bidankozen ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea, lan kontratukoa.

Ekitaldian likidatu diren eskubideak 29 milioi pezeta dira: tasak eta bestelako dirusarrerak, 14,7 milioi, dirusarrera guztien ehuneko 51.

Betetze-mailari bagagozkio, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 53 jo dute inbertsioek. Betetzemaila apal hori, kapital transferentziez ari den VII. kapituluko likidaturiko eskubideen eta aurrekontuaren arteko aldeari zor zaio: 2 eta 21 milioi.

Hona dirusarreren osaketa, portzentaien arabera:

| Dirusarrerak | Portzentaia |
|---|---|
| Tributuzkoak | 60 |
| Ohiko transferentzietakoak | 25 |
| Ondarekoak | 15 |
| Guztira | 100 |

1997ko ekitaldiak 8,5 milioi pezetako aurrekontu-emaitza positiboa du, erresultak kontuan izan gabe.

1997ko abenduaren 31n, ez dira ordaindu gabeko kopuruak aintzat hartu, eta kobratzeke dauden onetsitako eskubideek 93.495 pezeta egiten dute: 1997an likidatu diren tributu-kontzeptuei dagozkie.

**V.3.2. 1997ko abenduaren 31ko finantza-egoera**

Finantza-egoera erabat saneatua erakusten du Gardeko Udalak 1997ko abenduaren 31n.

Ondoren jarriko ditugu hainbat ratio eta magnitude, egoera ekonomikoa erakustearren:

| Ratio eta magnitudeak | 1997 |
|---|---|
| Aurrekontu-emaitza | 8.465.480 PTA. |
| Aurrezpen gordina (1) | 12.565.480 PTA. |
| Aurrezpen garbia (2) | 10.548.443 PTA. |
| Zorpetze maila (3) | %8 |
| Zorpetze muga (4) | %47 |
| Biztanleko gastu publikoa | 101.596 PTA. |
| Biztanleko inbertsio-gastuak | 16.536 PTA. |
| Biztanleko tributu-dirusarrerak (5) | 86.070 PTA. |
| Dirulaguntzekiko menpekotasuna (6) | %25 |
| Gastu guztien % zenbat dira langile gastuak | %19 |
| Gastu guztien % zenbat dira dirulaguntza gastuak | %16 |
| Gastu guztien % zenbat da finantza-zama | %10 |

1) Ohiko dirusarrerak - funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarreren 1. eta 5. kapituluen bitartekoak, eta funtzionamendu gastutzat, gastuen 1., 2. eta 4. kapituluak.
2) Aurrezpen gordina - finantza-zama. Finantza-zamatzat hartu dugu gastuen 3. eta 9. kapituluen batuketa.
3) Finantza-zama / ohiko dirusarrerak x 100
4) Aurrezpen gordina / ohiko dirusarrerak x 100
5) Tributu-dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapituluak) / biztanle kopurua.
6) Transferentzien ondoriozko dirusarrerak (4. eta 7. kapituluak) / dirusarrerak.

1997ko abenduaren 31ko finantza-egoeraz, berriz:

| Adierazleak | 1997 |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina | 48.732.846 |
| Fondo likidoak | 48.639.351 |
| +Kobratzeke dagoena | 93.495 |
| – Ordaintzeke dagoena | — |
| Epe luzeko zorra | 17.877.505 |

Aurrekontuaren emaitza doitua eta aurrezki garbia erabat positiboak dira: 8,5 eta 10,5 milioi, hurrenez hurren.

Zorpetze-maila zorpetze-muga baino askoz apalagoa da: ehuneko 7 inguru, mugatik beheiti (ehuneko 47).

Diruzaintzako gerakina positiboa da –48,7 milioi–, eta etorkizuneko aurrekontuetako gastuak finantzatzeko erabil daiteke.

Azkenik, Nafarroan 1.000 biztanletik behera zuten udalen 1996ko batez bestekoarekin konparatuz gero, hurrengo laukia ateratzen da:

| Ratioa | 1.000 bizt. beherako-udalen 1996ko batez bestekoa | Garde 1997 |
|---|---|---|
| Biztanleko ohiko gastua | 55.736 | 74.815 |
| Biztanleko ohiko inbertsioae | 80.739 | 132.617 |
| Biztanleko tributu-dirusarrera | 48.838 | 86.070 |
| Zorpetze muga | 35 | %47 |
| Zorpetze maila | 10 | %8 |

Ikus daitekeenez, dirusarreren kopurua da gehien aldentzen dena; oihan-aprobetxamenduen etekinak ratio horien barruan sartzea litzateke horren sorburua: 13 milioi izan dira 1997an, hau da, ekitaldiko dirusarrera guztien ehuneko 45, eta 62.700 pta. izan da per capita eragina.

**V.3.3. Kudeaketa-gomendioak**

Ondoren jarriko ditugu kudeaketa-arlo esanguratsuenei buruzko gomendio nagusiak, Ganbararen ustez Udalak onetsi beharko lituzkeenak, zertarako-eta antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

**Aurrekontuak eta kontabilitatea**

*• Kontabilitate-sistemak hobetzea, informazio osoa eduki eta udal-jardunaren jarraipen hobea egin ahal izateko.*

*• Indarreko legediak ezartzen dituen epeak betetzea aurrekontuak onesteko.*

*• Gastu-dirusarreren aurreikuspen orekatua egitea.*

*• Kontabilitate hatsapenak zorrotz erabiltzea, ekitaldi-itxieran, batez ere.*

**Inbentarioa eta ondarea**

*• Udal inbentarioa eguneratzea, ez baitute 1993tik eguneratu.*

*• Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emango duten prozedurak taxutu eta erabiltzea.*

*• Ondare higiezin ororen errentamendua dagokion kontratuarekin eustea.*

**Langileak**

*• Langileen Gizarte Segurantzaren atxikipena eta ordainketa aurrekontutik kanpo kontabilizatzea; enpresarioen kuota, aldiz, 1. Kapituluan, Udalaren gastu gisa.*

**Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea.**

*• BEZari buruzko erregelamendua betetzea, ordainagirietan zenbakia, data eta hornitzailearen eta Udalaren IFZ jasotzea.*

**Inbertsioak.**

*• Zuinketa-aktak egitea eta bideragarritasun-ziurtagiriak eskatzea, proiektu guztietan.*

*• Kredituak badirela egiaztatzeko agiriak luzatzea.*

*• Inbertsioetarako baldintzen orrietan ezartzen diren betetze-epeak betetzen direla zorrotz jarraitzea.*

**Tributu dirusarrerak**

*• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak; horretaz gain, dagokion argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.*

*• Oihan-aprobetxamenduen zenbatekoa honela kontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren unean.*

*• Zerga-ordenantzak zer ekitalditan sartuko diren indarrean, ekitaldi horren urtarrilaren 1a baino lehenago argitaratzea.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## VI. IZABAKO UDALA

### VI.1. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Izabako Udalaren 1997ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa aztertu dugu. Indarretxearen zerbitzu udaleratuaren 1997ko abenduaren 31ko egoera-balantzea eta 1997ko ekitaldiko galdu-irabazien kontua ere arakatu ditugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

**VI.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionean.**

1997ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzearen egoerak nahiko ongi islatzen ditu fiskalizatutako ekitaldian Udalak burutu dituen eragiketak, salbuespen hauekin:

• 9. kapituluan –finantza-pasiboen aldaketak– ez da gastuetarako kredituen izaera mugatzailea errespetatu.

• Aldi horretan izandako gastu batzuk ez dira kontabilizatu: 33.679.037 pezeta; horietatik 24.083.541 pezeta inbertsioei dagozkie, eta atxikita dituzte dirulaguntzen ondoriozko dirusarrera batzuk, 8.411.697 pezeta, alegia. Beste alde batetik, baso-aprobetxamenduei dagozkien 10.922.166 pezetako dirusarrerak ere ez dira jaso.

**VI.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondareari buruzko kontabilitaterik ez dagoenez, eta 1993tik datorren udal-inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1997ko abenduaren 31n udalak zeukan ondare-egoerari buruz.

**VI.1.3. Legezkotasuna**

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz burutzen da, aurrekontu-alorreko arau-hauste batzuk agertu diren arren.

**VI.1.4. Finantza- eta ekonomia-egoera**

Izabako Udalak finantza-egoera zaila erakusten du 1997ko abenduaren 31n; izan ere 125 milioi jotzen duten kreditu-lerroak eskatu ditu 1997ko ekitaldian. Ekitaldi bukaerako aurrezki garbia 8,8 milioi pezeta da, eta entitatearen inbertsio-ahalmena nabarmen murrizten du.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa,** Izabako Udalak:

• Egokiro kudeatzen ditu bere aurrekontuak, administrazioaren ikuspuntutik, baina hauek behar ditu:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreren sortzapen hatsapena zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

c) Dagozkion kreditu-aldaketak egitea, aurrekontuan diren kopuruen gaineko gasturik ez kontabilizatzeko.

• Finantzaketaren ikuspuntutik, zailtasun batzuk izan ditzake etorkizunean, inbertsio handiak egin dituelako, udal-finantzaketaren portzentaia altuarekin.

• Azkenik, gogoratu beharra dago Sektore Elektrikoa arautzeari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak, merkatua liberalizatzeko asmoz, merkataritza-sozietate izateko betebeharra ezarri diela argindarra banatzen dutenei; era berean, elkarrekin zerikusirik ez duten enpresek eman behar dituzte argindarra sortu eta banatzeko zerbitzuak, banaturik eman ere.

## VI.2. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

1997ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

| Gastuen kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen soldata | 28.938.776 | 28.938.776 | 19.483.069 | 67 |
| 2. Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea | 189.154.559 | 189.154.559 | 112.067.674 | 59 |
| 3. Korrituak | 7.193.484 | 7.193.760 | 3.258.886 | 45 |
| 4. Ohiko transferentziak | 19.961.484 | 19.961.484 | 7.602.797 | 38 |
| 6. Inbertsio errealak | 209.646.911 | 209.646.911 | 177.723.069 | 85 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 23.503.234 | 23.503.234 | 27.639.337 | 118 |
| Gastuak, guztira | 478.398.448 | 478.398.724 | 347.774.832 | 73 |

| Dirusarreren kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Likidaturiko eskubideak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 7.650.000 | 7.650.000 | 5.006.276 | 65 |
| 2. Zeharkako zergak | 4.417.458 | 4.417.458 | 5.230.167 | 118 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 142.301.965 | 142.301.965 | 90.545.555 | 64 |
| 4. Ohiko transferentziak | 55.139.018 | 55.139.018 | 58.057.664 | 105 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 20.650.140 | 20.650.140 | 20.065.021 | 97 |
| 7. Kapital transferentziak | 77.833.049 | 77.833.049 | 62.280.528 | 80 |
| 9. Finantza pasiboen aldaketa | 78.931.897 | 78.931.897 | 125.000.000 | 158 |
| Dirusarrerak, guztira | 386.923.527 | 386.923.527 | 366.185.211 | 95 |

Izabako udal indarretxea. Abenduaren 31ko egoera-balantzea (pezetatan)

| AKTIBOA | | |
|---|---|---|
| Izena | Zenbatekoa | |
| | 96-12-31 | 97-12-31 |
| IBILGETUA | 226.444.423 | 218.700.792 |
| IBILGETU MATERIALA | 226.444.423 | 218.700.792 |
| Lursailak eta eraikuntzak | 30.000.000 | 30.000.000 |
| Etxebizitza | 10.000.000 | 10.000.000 |
| Industri lokala | 20.000.000 | 20.000.000 |
| Instalazio tenknikoak eta makinak | 196.444.423 | 188.700.792 |
| Garraio linea | 12.000.000 | 12.000.000 |
| Banatze-sarea | 15.000.000 | 15.000.000 |
| Ekipo elektromekanikoa | 103.913.566 | 103.913.566 |
| Obra zibila | 111.880.990 | 111.880.990 |
| (Instalazio teknikoen eta makinen amortizazio pilatua) | (46.350.133) | (54.093.764) |
| AKTIBO ZIRKULATZAILEA | 13.860.887 | 18.420.558 |
| ZORDUNAK | 10.430.109 | 10.362.053 |
| Bezeroak | 1.515.321 | 931.756 |
| Bezeroak (E.R.Z) | 843.754 | 2.502.742 |
| Fakturatu gabeko energia | 7.953.834 | 5.507.055 |
| Bestelako zordunak | 5.003 | 5.003 |
| Finantza-zordunak | 147.906 | 0 |
| Ogasun publikoa: jasandako BEZa | 0 | 1.311.214 |
| Ogasun publikoa: PFEZ-atxikipenak | (102.018) | 0 |
| Ogasun publikoa: atxikipenak eta kontuko ordainketak | 66.309 | 104.283 |
| DIRUZAINTZA | 3.430.778 | 8.058.505 |
| Banco de Vasconia | 3.267.203 | 4.901.247 |
| Udal Aurrezki Kutxa | 163.575 | 3.157.258 |
| Aktiboa, guztira | 240.305.310 | 237.121.350 |

| PASIBOA | | |
|---|---|---|
| Izena | Zenbatekoa | |
| | 96-12-31 | 97-12-31 |
| FONDO PROPIOAK | 115.962.498 | 135.037.855 |
| Kapitala | 93.908.219 | 93.908.219 |
| Borondatezko erreserbak | 22.054.279 | 41.129.636 |
| HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO DIRUSARRERAK | 6.236.000 | 0 |
| Kapital dirulaguntzak | 6.236.000 | 0 |
| EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK | 2.739.888 | 6.721.344 |
| Merkataritza hartzekodunak | 298.267 | 53.319 |
| E.R.Z. hornitzailea, jaso gabeko ordainagiria | 298.267 | 53.319 |
| Merkataritzazkoak ez diren beste zorrak | 2.440.621 | 6.668.025 |
| Bestelako zordunak | 868.962 | 86.374 |
| Finantza-zordunak | 741.049 | 0 |
| Ordaintzeko merkataritza efektuetan adierazitako zorrak | 0 | 4.435.469 |
| Administrazio publikoak | 830.610 | 0 |
| Ogasun publikoa: erasandako BEZa | 0 | 1.973.824 |
| Ogasun publikoa: egindako atxikipenak | 0 | 99.035 |
| Gizarte Segurantza hartzekoduna | 0 | 73.323 |
| EPE LUZERAKO HARTZEKODUNAK | 96.291.667 | 80.750.001 |
| Finantza-entitateekiko zorrak | 38.791.667 | 0 |
| Epe luzerako maileguak | 38.791.667 | 0 |
| Finantzazkoak ez diren beste entitateekiko zorrak | 57.500.000 | 80.750.001 |
| Udalaren moneta-prestazioa | 57.500.000 | 80.750.001 |
| GALDU-IRABAZIAK | 19.075.357 | 14.612.150 |
| Pasiboa, guztira | 240.305.310 | 237.121.350 |

Izabako udal indarretxea. Galdu-irabazien kontua (pezetatan)

| | Zenbatekoa | |
|---|---|---|
| Kontzeptua | 96-12-31 | 97-12-31 |
| Salmentak, bezeroei | 27.844.468 | 27.613.886 |
| Salmentak, E.R.Z.ri | 12.633.575 | 7.478.759 |
| 1. EKOIZPENAREN BALIOA | 40.478.037 | 35.092.645 |
| Erosketak, E.R.Z.ri | (9.140.259) | (8.881.140) |
| Erosketak, hornikuntzak | (52.624) | (1.620) |
| Ustiapeneko beste zenbait gastu | (2.126.790) | (4.967.498) |
| 2. BALIO ERANTSIA | 29.158.364 | 21.242.387 |
| – Langileen gastuak | (3.682.097) | (3.924.347) |
| -3 USTIAPENAREN EMAITZA GORDINA | 25.476.267 | 17.318.040 |
| – Ibilgetuaren amortizaziorako dotazioa | (7.743.631) | (7.743.631) |
| 4. USTIAPENAREN EMAITZA GARBIA | 17.732.636 | 9.574.409 |
| + Finantza-dirusarrerak | 265.240 | 267.993 |
| – Finantza-gastuak | (5.135.271) | (1.514.101) |
| 5. JARDUERA ARRUNTAREN EMAITZA | 12.862.505 | 8.328.301 |
| + Kapital dirulaguntzen ondoriozko mozkinak | 6.236.000 | 6.236.000 |
| + Aparteko dirusarrerak | 71.849 | 69.221 |
| – Aurreko ekitaldietako galerak | (95.097) | (21.372) |
| 6. SORTUTAKO MOZKINAK | 19.075.357 | 14.612.150 |

## VI.3. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

### VI.3.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak

1997ko ekitaldirako aurrekontuak 478 milioi jotzen duten gastu-kredituak ditu, hasieran. Dirusarreren aurreikuspenek 387 milioi aipatu dituzte. 1997ko apirilaren 30ean onetsi zituen aurrekontuak Osoko Bilkurak. Udal indarretxeari dagozkion gastu-dirusarrerak ere sartu dira aurrekontu honetan.

Aurrekontua orekatzeko, gastu eta dirusarreren erresultak daude: 103 eta 12 milioi, hurrenez hurren. Duten garrantzia dela-eta, aipatzekoa da aurrekontuan diren ohiko gastuek 245 milioi egiten dutela, eta aurrekontuan diren ohiko dirusarrerak –230 milioi pezeta– baino gehiago direla.

Ez dute kreditu-aldaketarik egin, ekitaldian zehar.

Aitorturiko betebeharrek 348 milioi egiten dute, eta ehuneko 73ko betetze-maila. Azpimarratzekoa da finantza-pasiboen aldaketari buruzko kapituluak behin betiko aurreikuspenak gainditu dituela, eta, beraz, gastuetarako kredituen izaera mugatzailearen hatsapena urratu.

Hona osaketa, portzentaien arabera:

| Gastuak | Portzentaia |
|---|---|
| Funtzionamendukoak | 40 |
| Inbertsiokoak | 51 |
| Finantza-zamakoak | 9 |
| Guztira | 100 |

Ageri denez, inbertsioak gastu guztien ehuneko 51 dira; Udalaren inbertsio-ahalegina erakusten du horrek. Hauxe ere azpimarratu behar da: eski-kanpainako gastuak, zeinak ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketatzat kontabilizatu diren, 98 milioi pezeta izan direla ekitaldi horretan.

Hona Udaleko langileak, 1997ko abenduaren 31n:

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Uztarrozen ere ari da.

• Ofizial administraria, funtzionarioa

• Zerbitzuen arduraduna, funtzionarioa

• Indarretxearen arduraduna, funtzionarioa

• Turismo bulegoaren arduraduna, aldi baterako lan kontratukoa

Dirusarreren betetze-maila ehuneko 95 izan da. Kredituak emateagatik aitortu diren eskubideek, aldiz, 125 milioi pezeta izan dira. Eski-kanpainaren dirusarrerak 97 milioi pezeta izan dira: 61 milioi, tasak eta bestelako dirusarreretan kontabilizatu dira; 36 milioi pezeta, ohiko transferentzietan.

Hona dirusarreren osaketa, portzentaien arabera:

| Dirusarrerak | Portzentaia |
|---|---|
| Tributuzkoak | 28 |
| Ohiko transferentzietakoak | 33 |
| Ondarekoak | 5 |
| Kreditu-kontuetakoak | 34 |
| Guztira | 100 |

1997ko ekitaldiak 18 milioi pezetako aurrekontu-emaitza positiboa du, aurreko ekitaldietako erresultak kontuan izan gabe. Azpimarratu behar da kreditu-kontzesioen ondoriozko dirusarrerek 125 milioi egiten dutela, eta horietatik diruzaintzako saldotzat hartu diren 50 milioi pezeta ez direla erabili.

1997ko abenduaren 31n, 32 milioi pezeta zeuden ordaindu gabe; horietatik 25 milioi 1997ko inbertsioei dagozkie, eta 1,4 milioi udal kanpinaren aurreko errentatzaileen itzulketei. Beste alde batetik, 8 milioi kontabilizatu dira itxitako ekitaldietan, 1997ko ekitaldiko gastutzat hartu badira ere.

Ekitaldiaren itxieran kobratzeke dauden onetsitako eskubideek 4,7 milioi pezeta egiten dute: 4 milioi itxitako ekitaldiei dagozkie, eta gainerakoak 1997an likidatu diren tributu-kontzeptuei.

### VI.3.2. 1997ko abenduaren 31ko finantza-egoera

Finantza-egoera erabat saneatua erakusten du Erronkariko Udalak 1997ko abenduaren 31n.

Ondoren jarriko ditugu hainbat ratio eta magnitude, egoera ekonomikoa erakustearren:

| Ratio eta magnitudeak | 1997 |
|---|---|
| Aurrekontu-emaitza | 18.410.379 PTA. |
| Aurrezpen gordina (1) | 39.751.143 PTA. |
| Aurrezpen garbia (2) | 8.852.920 PTA. |
| Zorpetze maila (3) | %17 |
| Zorpetze muga (4) | %22 |
| Biztanleko gastu publikoa | 641.651 PTA. |
| Biztanleko inbertsio-gastuak | 327.902 PTA. |
| Biztanleko tributu-dirusarrerak (5) | 185.945 PTA. |
| Dirulaguntzekiko menpekotasuna (6) | %33 |
| Gastu guztien % zenbat dira langile gastuak | %6 |
| Gastu guztien % zenbat dira inbertsio gastuak | %51 |
| Gastu guztien % zenbat da finantza-zama | %9 |

1) Ohiko dirusarrerak - funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarreren 1. eta 5. kapituluen bitartekoak, eta funtzionamendu gastutzat, gastuen 1., 2. eta 4. kapituluak.
2) Aurrezpen gordina - finantza-zama. Finantza-zamatzat hartu dugu gastuen 3. eta 9. kapituluen batuketa.
3) Finantza-zama / ohiko dirusarrerak x 100
4) Aurrezpen gordina / ohiko dirusarrerak x 100
5) Tributu-dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapituluak) / biztanle kopurua.
6) Transferentzien ondoriozko dirusarrerak (4. eta 7. kapituluak) / dirusarrerak.

1997ko abenduaren 31ko finantza-egoeraz, berriz:

| Adierazleak | 1997 |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina | 107.250.178 |
| Fondo likidoak | 134.086.158 |
| +Kobratzeke dagoena | 4.727.910 |
| – Ordaintzeke dagoena | (31.563.890) |
| Epe luzeko zorra | 139.370.840 |
| Eski-kanpainako finantza-aktiboak (1) | 62.663.084 |

(1) Altxorreko letrak dira, eta fondo likidoen barruan daude.

Aurrekontuaren emaitza doitua eta diruzaintzako gerakina erabat positiboak dira; hala ere, azpimarratzekoa da kreditu-lerroak irekitzetik heldu diren 125 milioi dirusarreratzat hartzeagatik gertatu dela hori, 125 milioi horietatik 50 erabili ez badira ere, frontoiko eta kulturetxeko inbertsioengatik ordaintzeke dauden ziurtagiriei aurre egiteko erabiliko dira-eta.

Zorpetze-maila mugaren azpitik dago. Dena den, ehuneko 17ra iritsi da, eta zaindu egin behar da.

Azkenik, Nafarroan 1.000 biztanletik behera zuten udalen 1996ko batez bestekoarekin konparatuz gero, hurrengo laukia ateratzen da:

| Ratioa | 1.000 bizt. beherako-udalen 1996ko batez bestekoa | Izaba 1997 |
|---|---|---|
| Biztanleko ohiko gastua | 55.736 | 262.753 |
| Biztanleko ohiko inbertsioae | 80.739 | 330.082 |
| Biztanleko tributu-dirusarrera | 48.838 | 185.945 |
| Zorpetze muga | 35 | 22 |
| Zorpetze maila | 10 | 17 |

Adierazleen balioen arteko alde nabarmenak daude, bistan da, Izabaren baitan sartu direlako eski-kanpainaren ondoriozko gastu-dirusarrerak –eta per capita eragina 181.000 PTA da–, eta oihan-aprobetxamenduen dirusarrerak –23.900 PTA per capita–.

**VI.3.3. Inbertsioak**

Ekitaldian zehar, inbertsio errealen kapituluan likidatu diren obligazioek 1.778 milioi egiten dute. Ondorengo laukian aurkeztuko ditugu burutu diren obra nagusiak, esleipen- eta kontabilitate-zenbatekoekin.

| Obra | Esleitua | Kontabilizatua |
|---|---|---|
| Udal frontoia | 122.817.245 | 110.061.524 |
| Kulturetxea zaharberritzea | 26.839.169 | 31.543.229 |
| Suhiltzaileen parkea zaharberritzea | 19.918.875 | 27.555.881 |
| Guztira | 169.575.289 | 169.160.634 |

Obra-zuzendaritzak eta ekipamendu-gastuak ere sartu dira kontabilizaturiko kopuruetan.

Ondoren iruzkinduko ditugu aipatu obren alderdi garrantzitsuenak:

*Udal frontoia*

Obra honen proiektuak 138 milioi egiten du, eta 1996ko uztailaren 1eko Osoko Bilkuran onetsi zuten. Kontratatzeko modua lehiaketa da, eta lau kontratista aurkeztu ziren lizitaziora. 1996ko irailaren 23ko Osoko Bilkurak egin zuen esleipena, eta 123 milioitan esleitu zioten eskaintzarik merkeenari. 1996ko urriaren 8an izenpetu zuten egiaztatze- eta zuinketa-akta, eta obra egiteko epea 10 hilabete zen. Zelaiko lana egiteko garaian, behin betiko likidazioa onetsi gabe zegoen oraindik.

45 milioiko dirulaguntza eman zuen Nafarroako Gobernuak aipatu obra egiteko.

*Kulturetxea zaharberritzea*

Obra honen proiektuak 28 milioi egiten du, eta 1996ko urriaren 31ko Osoko Bilkuran onetsi zuten. Zuzenean kontratatu zuten, urgentziazko prozedura erabilita, eta lau eskaintza jaso ziren, hamaika eskatu baziren ere.

1996ko azaroaren 18an egin zen esleipena; izan ere, 27 milioitan esleitu zioten eskaintzarik merkeenari. 1996ko azaroaren 19an izenpetu zuten egiaztatze- eta zuinketa-akta, eta obra egiteko epea 5 hilabete zen. Txosten-lana egiteko garaian, behin betiko likidazioa onetsi gabe zegoen oraindik.

10 milioiko dirulaguntza eman zuen Nafarroako Gobernuak aipatu obra egiteko.

*Suhiltzaileen parkea zaharberritzea*

Obra honen proiektuak 20 milioi egiten du, eta 1996ko azaroaren 7ko Osoko Bilkuran onetsi zuten. Hala ere, esan beharra dago hasierako aurrekontua 14 milioi zela, eta ez zela inor aurkeztu.

Zuzenean kontratatu zuten, eta hamalau enpresari eskatu zitzaien eskaintza: 3 kontratista aurkeztu ziren lizitaziora. 20 milioitan esleitu zioten eskaintzarik abantailosenari

Ziurtagiriek 21 milioi pezeta egin dute, eta esleipen-prezioaren gaineko gehikuntza ehuneko 6 izan da. 1996ko abenduaren 24an izenpetu zuten egiaztatze- eta zuinketa-akta, eta azken ziurtagiria 1997ko maiatzaren 30ekoa da.

15 milioiko dirulaguntza eman zuen Nafarroako Gobernuak aipatu obra egiteko.

**VI.3.4. Eski kanpaina**

Izaba eta Otsagiko udalek eta Nafarroako Gobernuko Kirol eta Gazteriaren Institutuak hitzarmena izenpetu dute ipar-eskiko eskola-kanpainak kudeatu eta antolatzeko, Erronkari eta Zaraitzu ibarretan.

Hona 1997ko ekitaldian agertzen diren gastu-dirusarrera nagusiak:

| Gastuak | Zenbatekoa |
|---|---|
| Garraioak | 12.082.824 |
| Irakasleen zerbitzuak | 18.336.500 |
| Eskiak konpondu eta aldatzea | 4.244.056 |
| Pistak erabiltzea | 1.637.100 |
| Mantenua eta lojamendua | 52.595.550 |
| Jarduerak eta antolamendua | 8.644.727 |
| Guztira | 97.540.757 |

| Dirusarrerak | Zenbatekoa |
|---|---|
| Partehartzaileak izena ematea | 60.539.300 |
| Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza | 35.825.000 |
| Korrituak, kontu korronteak | 692.745 |
| Guztira | 97.057.045 |

Izabako Udala arduratzen da eski-kanpaina horien kudeaketaz. Kanpainak urtero egiten dira, urtarriletik apirilera, eguraldiaren arabera. Urrian hasten da aurretiko izen-ematea, eta abendurako egin behar da behin betikoa, dagokion ordainketarekin batera.

Kanpaina honen kudeaketak dakartzan administrazio-zereginak gehitu egin direnez, administrazio-laguntzaile bat kontratatu dute kanpainaren iraunaldirako.

83 ikastetxetatik etorritako lau mila partehartzaile izan ditu kanpainak 1997an. Eskiarekin lotuta dauden jarduerez gain –goizean egiten baitira–, jarduera osagarriak ere egiten dira arratsaldetan, kulturarekin eta kirolarekin lotuta.

**VI.3.5. Kudeaketa-gomendioak**

Ondoren jarriko ditugu kudeaketa-arlo esanguratsuenei buruzko gomendio nagusiak, Ganbararen ustez Udalak onetsi beharko lituzkeenak, zertarako-eta antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

**Aurrekontuak eta kontabilitatea**

*• Kontabilitate-sistemak hobetzea, informazio osoa eduki eta udal-jardunaren jarraipen hobea egin ahal izateko.*

*• Indarreko legediak ezartzen dituen epeak betetzea aurrekontuak onesteko.*

*• Gastu-dirusarreren aurreikuspen orekatua egitea.*

*• Gastuetarako kredituak mugatuak direlako hatsapena errespetatzea. Aurrekontu-aldaketak onestea, hala badagokio.*

*• Kontabilitate hatsapenak zorrotz erabiltzea, ekitaldi-itxieran, batez ere.*

**Inbentarioa eta ondarea**

*• Udal inbentarioa eguneratzea, ez baitute 1993tik eguneratu.*

*• Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emango duten prozedurak taxutu eta erabiltzea.*

*• Ondasun higiezinen errentamendu oro dagokion kontratuarekin eustea.*

**Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea.**

*• Udalean zerbitzuak ematen ari diren langileekiko harremana formalizatzea, zerbitzu-errentamenduaren kontratuaren bidez, eta ordainagiriak eskatuz, behar bezalako baldintzekin. (Igerilekuaren arduraduna, eski kanpainaren bateragilea, indarretxeko administraria).*

*• BEZari buruzko erregelamendua betetzea, ordainagirietan zenbakia, data eta hornitzailearen eta Udalaren IFZ jasotzea.*

*• Ordainketarik ez egitea gastuaren dokumentu-euskarririk (ordainagiririk) izan arte, eski-kanpainan, batez ere.*

**Inbertsioak.**

• Zuinketa-aktak egitea eta bideragarritasun-*ziurtagiriak eskatzea, proiektu guztietan.*

*• Kredituak badirela egiaztatzeko agiriak luzatzea.*

*• Baldintzen orrietan esaten den dokumentazioa eskatzea obren esleipendunei, kontratazio guztietan.*

*• Inbertsioetarako baldintzen orrietan ezartzen diren betetze-epeak betetzen direla zorrotz jarraitzea.*

**Tributu dirusarrerak**

*• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak; horretaz gain, dagokion argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.*

*• Obra egiteko aurrekontuen aurkezpena eskatzea, obra-baimena eman baino lehen; hartara, eraikuntzen gaineko zerga likida daiteke, behin-behinekoz*

*• Oihan-aprobetxamenduen zenbatekoa honela kontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren unean.*

*• Zerga-ordenantzak zer ekitalditan sartuko diren indarrean, ekitaldi horren urtarrilaren 1a baino lehenago argitaratzea.*

**Dirulaguntzen ondoriozko dirusarrerak**

*• Idazkariaren gastuetatik egokitzen den zatia dagokion ekitaldian likidatzea Uztarrozeko Udalari.*

*• Ohiko gastuak finantzatzeko dirulaguntzak ohiko transferentziak 4. kapituluan kontabilizatzea.*

*• Itxieran, ekitaldiaren emaitza doitua ateratzeko, dagozkion doiketak egitea, finantzaketaren desbideraketa dela-eta.*

**Diruzaintza**

*• Ahalik eta gehien murriztu kontu korronteen eta finantza-entitateen kopurua, eta saldo sinbolikoak dituzten kontuak kentzea.*

*• Mugimendu gutxi duten kontu korronteen kobraketak eta ordainketak kontabilizatzea.*

VI.4. GORABEHERAK

Lana egiteko garaian, eta entitateak berak emandako berrien arabera, Udalak bazituen bi administrazio-auzigaietako errekurtso: bata, Izabako indarretxean 1992an egindako obren azken likidazioari buruz, eta bestea, udal kanpineko aurreko errentatzaileei egindako likidazioari buruz.

Egun, ezinezkoa da aipatu errekurtsoen ebazpenetik etor daitezkeen ondorio ekonomikoak zenbatestea.

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## VII. ERRONKARIKO UDALA

VII.1. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Erronkariko Udalaren 1997ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa aztertu dugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

**VII.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionean.**

1997ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzearen egoerak nahiko ongi islatzen ditu fiskalizatutako ekitaldian Udalak burutu dituen eragiketak, salbuespen hauekin:

• 1. kapituluan –langileen ordainketak– ez da gastuetarako kredituen izaera mugatzailea errespetatu, 0,5 milioitan.

• Aldi horretan izandako gastu batzuk ez dira kontabilizatu: 6.733.482 pezeta; horietatik 5.561.581 pezeta inbertsio errealei dagozkie, eta atxikita dituzte dirulaguntzen ondoriozko dirusarrera batzuk, 4.037.708 pezeta, alegia. Beste alde batetik, baso-aprobetxamenduei dagozkien 1.830.660 pezetako dirusarrerak ere ez dira jaso.

**VII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondareari buruzko kontabilitaterik ez dagoenez, eta 1993tik datorren udal-inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1997ko abenduaren 31n udalak zeukan ondare-egoerari buruz.

**VII.1.3. Legezkotasuna**

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz burutzen da, aurrekontu-alorreko arau-hauste batzuk agertu diren arren.

**VII.1.4. Finantza- eta ekonomia-egoera**

Erronkariko Udalak finantza-egoera saneatua erakusten du 1997ko abenduaren 31n. Ekitaldi bukaerako aurrezki garbia 17,4 milioi pezeta da, zorpetzea hutsaren hurrengoa eta diruzaintzako gerakin positiboa 17,4 milioi da.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa,** Erronkariko Udalak:

• Egokiro kudeatzen ditu bere aurrekontuak, administrazioaren ikuspuntutik, baina hauek behar ditu:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreren sortzapen hatsapena zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

c) Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko.

d) Dagozkion kreditu-aldaketak egitea, aurrekontuan diren kopuruen gaineko gasturik ez kontabilizatzeko.

• Finantzaketaren ikuspuntutik, egoera saneatua du, erabat: hutsaren hurrengo zorpetzeari eta diruzaintza-gerakin handiari zor zaie.

VII.2. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

1997ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

| Gastuen kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen gastuak | 12.617.808 | 12.617.808 | 13.238.376 | 105 |
| 2. Gtos. en bienes corrientes y serv. | 12.403.064 | 12.403.064 | 10.368.201 | 83 |
| 3. Gastos financieros | 1.877.778 | 1.877.778 | | 0 |
| 4. Ohiko transferentziak | 4.897.000 | 4.897.000 | 4.421.176 | 90 |
| 6. Inbertsio errealak | 98.276.170 | 98.276.170 | 6.073.490 | 6 |
| Gastuak, guztira | 130.077.820 | 130.077.820 | 34.161.243 | 26 |

| Dirusarreren kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Likidaturiko eskubideak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 3.620.007 | 3.620.007 | 3.855.418 | 107 |
| 2. Zeharkako zergak | 1.958.228 | 1.958.228 | 2.716.784 | 139 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 11.367.000 | 11.367.000 | 13.264.301 | 117 |
| 4. Ohiko transferentziak | 16.776.988 | 16.776.988 | 18.315.549 | 109 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 1.345.000 | 1.345.000 | 1.349.482 | 100 |
| 7. Kapital transferentziak | 55.910.097 | 55.910.097 | 3.568.175 | 6 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 31.508.714 | 31.508.714 | 680.927 | 2 |
| Dirusarrerak, guztira | 122.486.034 | 122.486.034 | 43.750.636 | 36 |

VII.3. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

**VII.3.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak**

1997ko ekitaldirako aurrekontuak 130 milioi jotzen duten gastu-kredituak ditu, hasieran. Dirusarreren aurreikuspenek 122,5 milioi aipatu dituzte. 1997ko apirilaren 29an onetsi zituen aurrekontuak Osoko Bilkurak. Aurrekontua orekatzeko, dirusarreren erresultak daude: 7,5 milioi. Ez dute kreditu-aldaketarik egin, ekitaldian zehar.

Aitorturiko betebeharrek 34 milioi egiten dute, eta ehuneko 26ko betetze-maila. Betetze apal hori inbertsiorik ez egiteari zor zaio; izan ere, 98 milioi zeuden aurrekontuetan, baino 6 milioi besterik ez dira bete. Azpimarratzekoa da 1. kapituluak –langileen ordainketak– behin betiko aurreikuspenak gainditu dituela, eta, beraz, gastuetarako kredituen izaera mugatzailearen hatsapena urratu.

Hona osaketa, portzentaien arabera:

| Gastuak | Portzentaia |
|---|---|
| Funtzionamendukoak | 82 |
| Inbertsiokoak | 18 |
| Guztira | 100 |

Ageri denez, funtzionamendu gastuak gastu guztien ehuneko 82 dira; langile gastuek ehuneko 39 egiten dute, eta finantza-zama hutsa da.

Hona Udaleko langileak, 1997ko abenduaren 31n:

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Urzainkin ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea, funtzionarioa.

• Eskoletako garbitzailea (lan kontratukoa, lanaldiaren zati baterako)

Ekitaldian aitortu diren eskubideak 44 milioi pezeta dira; betetze-maila, ehuneko 36. Ohiko dirusarreren kapitulu guztien betetzea izan da aurrekontuan zeuden kopuruak baino handiagoa. Aldi berean, azpimarratzekoa da kapital transferentzien eta finantza-pasiboen aldaketaren betetze-maila: ehuneko 6 eta ehuneko bi, hurrenez hurren.

Hona dirusarreren osaketa, portzentaien arabera:

| Dirusarrerak | Portzentaia |
|---|---|
| Tributuzkoak | 45 |
| Ohiko transferentzietakoak | 50 |
| Ondarekoak | 5 |
| Guztira | 100 |

Dirusarreren kapituluak aztertuz gero, ohiko transferentziei buruzkoak 18 milioi ditu, eta dirusarrera guztien ehuneko 42 egiten du; ondotik datoz tasak eta bestelako dirusarrerak: 13 milioi, ehuneko 30.

1997ko ekitaldiak 9,6 milioi pezetako aurrekontu-emaitza positiboa du, erresultak kontuan izan gabe.

1997ko abenduaren 31n, ez dira ordaindu gabeko kopuruak aintzat hartu, eta kobratzeke dauden onetsitako eskubideek 205.740 pezeta egiten dute: 92.659 pezeta, 1997an likidatu diren tributu-kontzeptuei dagozkie, eta gainerakoak, itxitako ekitaldiei.

**VII.3.2. 1997ko abenduaren 31ko finantza-egoera**

Finantza-egoera erabat saneatua erakusten du Erronkariko Udalak 1997ko abenduaren 31n.

Ondoren jarriko ditugu hainbat ratio eta magnitude, egoera ekonomikoa erakustearren:

| Ratio eta magnitudeak | 1997 |
|---|---|
| Aurrekontu-emaitza | 9.589.393 PTA. |
| Aurrezpen gordina (1) | 11.473.781 PTA. |
| Aurrezpen garbia (2) | 11.473.781 PTA. |
| Zorpetze maila (3) | %0 |
| Zorpetze muga (4) | %29 |
| Biztanleko gastu publikoa | 93.592 PTA. |
| Biztanleko inbertsio-gastuak | 16.640 PTA. |
| Biztanleko tributu-dirusarrerak (5) | 54.347 PTA. |
| Dirulaguntzekiko menpekotasuna (6) | %50 |
| Gastu guztien % zenbat dira langile gastuak | %39 |
| Gastu guztien % zenbat dira inbertsio gastuak | %18 |
| Gastu guztien % zenbat da finantza-zama | %0 |

1) Ohiko dirusarrerak - funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarreren 1. eta 5. kapituluen bitartekoak, eta funtzionamendu gastutzat, gastuen 1., 2. eta 4. kapituluak.

2) Aurrezpen gordina - finantza-zama. Finantza-zamatzat hartu dugu gastuen 3. eta 9. kapituluen batuketa.

3) Finantza-zama / ohiko dirusarrerak x 100

4) Aurrezpen gordina / ohiko dirusarrerak x 100

5) Tributu-dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapituluak) / biztanle kopurua.

6) Transferentzien ondoriozko dirusarrerak (4. eta 7. kapituluak) / dirusarrerak.

1997ko abenduaren 31ko finantza-egoeraz, berriz:

| Adierazleak | 1997 |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina | 17.369.410 |
| Fondo likidoak | 17.163.670 |
| +Kobratzeke dagoena | 205.740 |
| – Ordaintzeke dagoena | 0 |
| Epe luzeko zorra | 0 |

Aurrekontuaren emaitza eta aurrezki garbia erabat positiboak dira: 9,6 eta 17 milioi, hurrenez hurren.

Zorpetze-maila hutsa da. Ekitaldiko aurrezpen garbia 17 milioi da, eta 1998ko aurrekonturako finantza-iturri garrantzizkoa da.

Azkenik, Nafarroan 1.000 biztanletik behera zuten udalen 1996ko batez bestekoarekin konparatuz gero, hurrengo laukia ateratzen da:

| Ratioa | 1.000 bizt. beherako-udalen 1996ko batez bestekoa | Erronkari 1997 |
|---|---|---|
| Biztanleko ohiko gastua | 55.736 | 76.953 |
| Biztanleko ohiko inbertsioae | 80.739 | 108.223 |
| Biztanleko tributu-dirusarrera | 48.838 | 54.347 |
| Zorpetze muga | 35 | 29 |
| Zorpetze maila | 10 | 0 |

Udalaren zorpetze-mailaren ezereza azpimarra daiteke; izan ere, gainerakoen batez bestekoa ehuneko 10 da. Per capita dirusarrerak ere handiagoak dira, oihan-aprobetxamenduetatik ateratako 7,2 milioien ondorioz, funtsean –herritar bakoitzeko 19.700 pezeta–.

**VII.3.3. Kudeaketa-gomendioak**

Ondoren jarriko ditugu kudeaketa-arlo esanguratsuenei buruzko gomendio nagusiak, Ganbararen ustez Udalak onetsi beharko lituzkeenak, zertarako-eta antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

**Aurrekontuak eta kontabilitatea**

*• Kontabilitate-sistemak hobetzea, informazio osoa eduki eta udal-jardunaren jarraipen hobea egin ahal izateko.*

*• Indarreko legediak ezartzen dituen epeak betetzea aurrekontuak onesteko.*

*• Gastu-dirusarreren aurreikuspen orekatua egitea.*

*• Gastuetarako kredituak mugatuak direlako hatsapena errespetatzea. Aurrekontu-aldaketak onestea, hala badagokio.*

*• Kontabilitate hatsapenak zorrotz erabiltzea, ekitaldi-itxieran, batez ere.*

**Inbentarioa eta ondarea**

*• Udal inbentarioa eguneratzea, ez baitute 1993tik eguneratu.*

*• Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emango duten prozedurak taxutu eta erabiltzea.*

**Langileak**

*• Langileen Gizarte Segurantzaren atxikipena eta ordainketa aurrekontutik kanpo kontabilizatzea; enpresarioen kuota, aldiz, 1. Kapituluan, Udalaren gastu gisa.*

*• Hirugarrenen zerbitzuen emanaldiak gastuen II. kapituluan kontabilizatu behar dira (uhal-ikastaroko irakaslea).*

**Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea.**

*• Udalean zerbitzuak ematen ari diren langileekiko harremana formalizatzea, zerbitzu-errentamenduaren kontratuaren bidez, eta ordainagiriak eskatuz, behar bezalako baldintzekin. (uhal-eskulangintza ikastaroko irakaslea, udaltzainarentzako laguntza jaietan).*

*• BEZari buruzko erregelamendua betetzea, ordainagirietan zenbakia, data eta hornitzailearen eta Udalaren IFZ jasotzea.*

**Inbertsioak.**

*• Zuinketa-aktak egitea eta bideragarritasunziurtagiriak eskatzea, proiektu guztietan.*

*• Baldintzen orrietan esaten den dokumentazioa eskatzea obren esleipendunei, kontratazio guztietan.*

**Tributu dirusarrerak**

*• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldeak; horretaz gain, dagokion argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.*

*• Oihan-aprobetxamenduen zenbatekoa honela kontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren unean.*

*• Zerga-ordenantzak zer ekitalditan sartuko diren indarrean, ekitaldi horren urtarrilaren 1a baino lehenago argitaratzea.*

*Dirulaguntzen ondoriozko dirusarrerak*

*• Itxieran, ekitaldiaren emaitza doitua ateratzeko, dagozkion doiketak egitea, finantzaketaren desbideraketa dela-eta.*

**Diruzaintza**

*• Ahalik eta gehien murriztu kontu korronteen eta finantza-entitateen kopurua, eta saldo sinbolikoak dituzten kontuak kentzea.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## VIII. URZAINKIKO UDALA

### VIII.1. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Urzainkiko Udalaren 1997ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa aztertu dugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

#### VIII.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionean.

1997ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzearen egoerak nahiko ongi islatzen ditu fiskalizatutako ekitaldian Udalak burutu dituen eragiketak, salbuespen hauekin: aldi horretan izandako gastu batzuk ez dira kontabilizatu: 598.514 pezeta; beste alde batetik, baso-aprobetxamenduei dagozkien 1.004.240 pezetako dirusarrerak ere ez dira jaso.

#### VIII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondareari buruzko kontabilitaterik ez dagoenez, eta 1993tik datorren udal-inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1997ko abenduaren 31n udalak zeukan ondareegoerari buruz.

#### VIII.1.3. Legezkotasuna

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz burutzen da, aurrekontu-alorreko arau-hauste batzuk agertu diren arren.

**VIII.1.4. Finantza- eta ekonomia-egoera**

Urzainkiko Udalak finantza-egoera saneatua erakusten du 1997ko abenduaren 31n. Aurrezki garbia 6.222.309 pezeta da, eta diruzaintzako gerakin positiboa 10.681.389 pta. da.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa,** Urzainkiko Udalak:

• Egokiro kudeatzen ditu bere aurrekontuak, administrazioaren ikuspuntutik, baina hauek behar ditu:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreren sortzapen hatsapena zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

• Finantzaketaren ikuspuntutik, egoera saneatua du, erabat: hutsaren hurrengo zorpetzeari eta diruzaintza-gerakin handiari zor zaie.

VIII.2. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

1997ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

| Gastuen kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen gastuak | 2.320.978 | 2.320.978 | 2.096.858 | 90 |
| 2. Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea | 4.365.000 | 4.365.000 | 3.280.179 | 75 |
| 4. Ohiko transferentziak | 2.694.386 | 2.694.386 | 2.469.985 | 92 |
| 6. Inbertsio errealak | 7.613.490 | 7.613.490 | 3.584.891 | 47 |
| Gastuak, guztira | 16.993.854 | 16.993.854 | 11.431.913 | 67 |

| Dirusarreren kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Likidaturiko eskubideak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 1.200.000 | 1.200.000 | 1.292.517 | 108 |
| 2. Zeharkako zergak | 655.000 | 655.000 | 576.183 | 88 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 7.063.100 | 7.063.100 | 7.735.759 | 110 |
| 4. Ohiko transferentziak | 2.944.775 | 2.944.755 | 3.333.399 | 113 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 860.000 | 860.000 | 1.131.473 | 132 |
| 6.. Enajenación de Inbertsio errealak | 150.000 | 150.000 | — | 0 |
| 7. Kapital transferentziak | 4.120.979 | 4.120.979 | — | 0 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | — | — | 213.043 | --- |
| Dirusarrerak, guztira | 16.993.854 | 16.993.854 | 14.282.374 | 84 |

VIII.3. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

**VIII.3.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak**

1997ko ekitaldirako aurrekontuak 17 milioi jotzen duten gastu-kredituak ditu, hasieran; kopuru bereko dirusarrera-aurreikuspenak ditu, halaber.

Ekitaldian zehar, ez diote kreditu-aldaketarik egin hasieran onetsitako aurrekontuari.

Aitorturiko betebeharrek 11,4 milioi egiten dute, eta ehuneko 67ko betetze-maila. Inbertsio errealei buruzko kapituluaren betetze-maila ehuneko 47 da.

Hona osaketa, portzentaien arabera:

| Gastuak | Portzentaia |
|---|---|
| Funtzionamendukoak | 69 |
| Inbertsiokoak | 31 |
| Finantza-zamakoak | 0 |
| Guztira | 100 |

Ageri denez, inbertsioak dira gastu guztiaren ehuneko 31. Garrantziaren arabera, ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea da hurrengo kapitulua: ehuneko 29.

Hona Udaleko langileak, 1997ko abenduaren 31n:

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Erronkarin ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea, lan kontratuko finkoa, lanaldiaren zati baterako)

Ekitaldian aitortu diren eskubideak 14,3 milioi pezeta dira; betetze-maila, ehuneko 84.

Dirusarrerak kapituluka aztertuz gero, 7,7 milioi daude tasak eta bestelako dirusarreretan: aitorturiko eskubideen ehuneko 54; ondotik datoz ohiko transferentziak: ehuneko 23.

Hona dirusarreren osaketa, portzentaien arabera:

| Dirusarrerak | Portzentaia |
|---|---|
| Tributuzkoak | 67 |
| Ohiko transferentzietakoak | 23 |
| Ondarekoak | 10 |
| Guztira | 100 |

1997ko ekitaldiak 2,8 milioi pezetako aurrekontu-emaitza positiboa du, erresultak kontuan izan gabe.

1997ko abenduaren 31n, ez dira ordaindu gabeko kopuruak aintzat hartu, eta kobratzeke dauden onetsitako eskubideek 245.870 pezeta egiten dute: 127.507 pezeta, 1997an likidatu diren tributu-kontzeptuei dagozkie, eta gainerakoak, itxitako ekitaldiei.

**VIII.3.2. 1997ko abenduaren 31ko finantza-egoera**

Finantza-egoera erabat saneatua erakusten du Urzainkiko Udalak 1997ko abenduaren 31n.

Ondoren jarriko ditugu hainbat ratio eta magnitude, egoera ekonomikoa erakustearren:

| Ratio eta magnitudeak | 1997 |
|---|---|
| Aurrekontu-emaitza | 2.850.461 PTA. |
| Aurrezpen gordina (1) | 6.222.309 PTA. |
| Aurrezpen garbia (2) | 6.222.309 PTA. |
| Zorpetze maila (3) | %0 |
| Zorpetze muga (4) | %44 |
| Biztanleko gastu publikoa | 102.990 PTA. |
| Biztanleko inbertsio-gastuak | 32.296 PTA. |
| Biztanleko tributu-dirusarrerak (5) | 86.527 PTA. |
| Dirulaguntzekiko menpekotasuna (6) | %23 |
| Gastu guztien % zenbat dira langile gastuak | %18 |
| Gastu guztien % zenbat dira inbertsio gastuak | %31 |
| Gastu guztien % zenbat da finantza-zama | %0 |

1) Ohiko dirusarrerak - funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarreren 1. eta 5. kapituluen bitartekoak, eta funtzionamendu gastutzat, gastuen 1., 2. eta 4. kapituluak.

2) Aurrezpen gordina - finantza-zama. Finantza-zamatzat hartu dugu gastuen 3. eta 9. kapituluen batuketa.

3) Finantza-zama / ohiko dirusarrerak x 100

4) Aurrezpen gordina / ohiko dirusarrerak x 100

5) Tributu-dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapituluak) / biztanle kopurua.

6) Transferentzien ondoriozko dirusarrerak (4. eta 7. kapituluak) / dirusarrerak.

1997ko abenduaren 31ko finantza-egoeraz, berriz:

| Adierazleak | 1997 |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina | 10.681.389 |
| Fondo likidoak | 10.435.519 |
| + Kobratzeke dagoena | 245.870 |
| – Ordaintzeke dagoena | — |
| Epe luzeko zorra | 0 |

Aurrekontuaren emaitza eta aurrezki garbia erabat positiboak dira: 2,8 eta 6,2 milioi, hurrenez hurren.

Diruzaintzaren gerakin positiboa 10.681.389 pezeta da, eta hurrengo ekitaldietan gastuak egiteko finantza-iturri garrantzizkoa da.

Azkenik, Nafarroan 1.000 biztanletik behera zuten udalen 1996ko batez bestekoarekin konparatuz gero, hurrengo laukia ateratzen da:

| Ratioa | 1.000 bizt. beherako-udalen 1996ko batez bestekoa | Urzainki 1997 |
|---|---|---|
| Biztanleko ohiko gastua | 55.736 | 70.694 |
| Biztanleko ohiko inbertsioae | 80.739 | 126.751 |
| Biztanleko tributu-dirusarrera | 48.838 | 86.527 |
| Zorpetze muga | 35 | 44 |
| Zorpetze maila | 10 | 0 |

Udalaren zorpetze-mailaren ezereza azpimarra daiteke. Dirusarrerek pisu handiagoa dute, oihan-aprobetxamenduen ondorioz, funtsean: 3,9 milioi, 32.500 pta.ko per capita dirusarrerak.

**VIII.3.3. Kudeaketa-gomendioak**

Ondoren jarriko ditugu kudeaketa-arlo esanguratsuenei buruzko gomendio nagusiak, Ganbararen ustez Udalak onetsi beharko lituzkeenak, zertarako-eta antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

**Aurrekontuak eta kontabilitatea**

*• Kontabilitate-sistemak hobetzea, informazio osoa eduki eta udal-jardunaren jarraipen hobea egin ahal izateko.*

*• Indarreko legediak ezartzen dituen epeak betetzea aurrekontuak onesteko.*

*• Kontabilitate hatsapenak zorrotz erabiltzea, ekitaldi-itxieran, batez ere.*

**Inbentarioa eta ondarea**

*• Udal inbentarioa eguneratzea, ez baitute 1993tik eguneratu.*

*• Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emango duten prozedurak taxutu eta erabiltzea.*

**Langileak**

*• Langileen Gizarte Segurantzaren atxikipena eta ordainketa aurrekontutik kanpo kontabilizatzea; enpresarioen kuota, aldiz, 1. Kapituluan, Udalaren gastu gisa.*

**Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea.**

*• BEZari buruzko erregelamendua betetzea, ordainagirietan zenbakia, data eta hornitzailearen eta Udalaren IFZ jasotzea.*

**Inbertsioak.**

*• Baldintzen orrietan esaten den dokumentazioa eskatzea obren esleipendunei, kontratazio guztietan.*

**Tributu dirusarrerak**

*• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldeak; horretaz gain, dagokion argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.*

*• Oihan-aprobetxamenduen zenbatekoa honela kontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren unean.*

*• Zerga-ordenantzak zer ekitalditan sartuko diren indarrean, ekitaldi horren urtarrilaren 1a baino lehenago argitaratzea.*

**ABIL**

*• Aurrekontuz kanpoko eragiketen kontu guztiak aztertzea, haien saldoen balioa egiaztatzea, eta erregularizatzeari ekitea, hala badagokio.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## IX. UZTARROZEKO UDALA

### IX.1. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Uztarrozeko Udalaren 1997ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa aztertu dugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

**IX.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionean.**

1997ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzearen egoerak nahiko ongi islatzen ditu fiskalizatutako

ekitaldian Udalak burutu dituen eragiketak, salbuespen hauekin: aldi horretan izandako gastu batzuk ez dira kontabilizatu: 2.125.476 pezeta; beste alde batetik, baso-aprobetxamenduei dagozkien 1.181.440 pezetako dirusarrerak ere ez dira jaso.

**IX.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondareari buruzko kontabilitaterik ez dagoenez, eta 1993tik datorren udal-inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1997ko abenduaren 31n udalak zeukan ondareegoerari buruz.

**IX.1.3. Legezkotasuna**

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz burutzen da, aurrekontu-alorreko arau-hauste batzuk agertu diren arren.

**IX.1.4. Finantza- eta ekonomia-egoera**

Uztarrozeko Udalak finantza-egoera saneatua erakusten du 1997ko abenduaren 31n. Zorpetzemaila ehuneko bederatzi da, eta aurrezki garbi positiboa hiru milioi pezeta.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa,** Urzainkiko Udalak:

• Egokiro kudeatzen ditu bere aurrekontuak, administrazioaren ikuspuntutik, baina hauek behar ditu:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreren sortzapen hatsapena zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

• Finantzaketaren ikuspuntutik, egoera saneatua du; hala ere, egiten ari diren inbertsioek –garrantzizko udal finantzaketarekin egin ere– finantza-egoera hori alda dezakete; are gehiago, dirusarrera horiek jasotako dirulaguntzen menpe daudenean, hein handi batean –ehuneko 71, 1997an–.

IX.2. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

1997ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

| Gastuen kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen soldatak | 3.888.968 | 3.888.968 | 3.854.800 | 99 |
| 2. Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea | 8.473.290 | 8.473.290 | 7.097.111 | 84 |
| 3. Korrituak | 910.000 | 910.000 | 587.820 | 65 |
| 4. Ohiko transferentziak | 2.393.720 | 2.393.720 | 2.336.557 | 98 |
| 6. Inbertsio errealak | 80.075.083 | 80.075.083 | 42.226.442 | 53 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 1.000.000 | 1.000.000 | 1.000.000 | 100 |
| Guztira | 96.741.061 | 96.741.061 | 57.102.730 | 59 |

| Dirusarreren kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Likidaturiko eskubideak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 2.147.000 | 2.147.000 | 1.826.741 | 85 |
| 2. Zeharkako zergak | 1.124.373 | 1.124.373 | 1.872.580 | 167 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 8.338.925 | 8.338.925 | 7.000.052 | 84 |
| 4. Ohiko transferentziak | 6.620.044 | 6.620.044 | 7.525.099 | 114 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 666.476 | 666.476 | 568.447 | 85 |
| 7. Kapital transferentziak | 48.960.931 | 48.960.931 | 20.461.120 | 42 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 13.341.927 | 13.341.927 | 0 | 0 |
| Guztira | 81.199.676 | 81.199.676 | 39.254.039 | 48 |

IX.3. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

**IX.3.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak**

1997ko ekitaldirako aurrekontuak 97 milioi jotzen duten gastu-kredituak ditu, hasieran; dirusarrera-aurreikuspenak 81 milioi dira. 1997ko apirilaren 22an onetsi zituen Osoko Bilkurak aurrekontua.

Dirusarreren erresulten ondoriozko 16 milioi pezetarekin orekatuko da aurrekontua. Ekitaldian zehar, ez dute kreditu-aldaketarik egin.

Aitorturiko betebeharrek 57 milioi egiten dute, eta ehuneko 59ko betetze-maila. Inbertsio errealei buruzko kapituluaren betetze-mailari zor zaio maila apal hori: ehuneko 53 besterik ez da izan.

Hona osaketa, portzentaien arabera:

| Gastuak | Portzentaia |
|---|---|
| Funtzionamendukoak | 23 |
| Inbertsiokoak | 74 |
| Finantza-zamakoak | 3 |
| Guztira | 100 |

Ageri denez, inbertsioak dira gastu guztiaren ehuneko 74. Udalaren inbertsio-ahalegina erakusten du horrek.

Hona Udaleko langileak, 1997ko abenduaren 31n:

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Izaban ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea, aldi baterako lan kontratukoa.

Dirusarreren betetze-maila ehuneko 48 izan da. Kapital transferentzien ondorioz aitortu diren eskubideek 20 milioi izan dira, dirusarrera guztien ehuneko 52.

Hona dirusarreren osaketa, portzentaien arabera:

| Dirusarrerak | Portzentaia |
|---|---|
| Tributuzkoak | 27 |
| Ohiko transferentzietakoak | 71 |
| Ondarekoak | 2 |
| Guztira | 100 |

Dirulaguntzekiko menpekotasuna oso handia da: ehuneko 71. Hau da, Udalak aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 71 jasotako dirulaguntza eta transferentzietatik heldu dira.

1997ko ekitaldiak 18 milioi pezetako aurrekontuemaitza negatiboa du, erresultak kontuan izan gabe.

1997ko abenduaren 31n, 26 milioi pezeta dago ordaindu gabe: saneamendu eta hornidura sareak berritzeko obren ziurtagiriei dagokie.

Ekitaldiaren itxieran, kobratzeke dauden onetsitako eskubideek 0,7 milioi pezeta egiten dute: 0,6 milioi, itxitako ekitaldikoak dira, eta, gainerakoak, 1997an likidatu diren tributu-kontzeptuei dagozkie.

**IX.3.2. 1997ko abenduaren 31ko finantza-egoera**

Finantza-egoera saneatua erakusten du Uztarrozeko Udalak 1997ko abenduaren 31n.

Ondoren jarriko ditugu hainbat ratio eta magnitude, egoera ekonomikoa erakustearren:

| Ratio eta magnitudeak | 1997 |
|---|---|
| Aurrekontu-emaitza | (17.848.691) PTA. |
| Aurrezpen gordina (1) | 5.504.451 PTA. |
| Aurrezpen garbia (2) | 3.916.631 PTA. |
| Zorpetze maila (3) | %8 |
| Zorpetze muga (4) | %29 |
| Biztanleko gastu publikoa | 201.776 PTA. |
| Biztanleko inbertsio-gastuak | 149.210 PTA. |
| Biztanleko tributu-dirusarrerak (5) | 37.807 PTA. |
| Dirulaguntzekiko menpekotasuna (6) | %71 |
| Gastu guztien % zenbat dira langile gastuak | %7 |
| Gastu guztien % zenbat dira inbertsio gastuak | %74 |
| Gastu guztien % zenbat da finantza-zama | %3 |

1) Ohiko dirusarrerak - funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarreren 1. eta 5. kapituluen bitartekoak, eta funtzionamendu gastutzat, gastuen 1., 2. eta 4. kapituluak.
2) Aurrezpen gordina - finantza-zama. Finantza-zamatzat hartu dugu gastuen 3. eta 9. kapituluen batuketa.
3) Finantza-zama / ohiko dirusarrerak x 100
4) Aurrezpen gordina / ohiko dirusarrerak x 100
5) Tributu-dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapituluak) / biztanle kopurua.
6) Transferentzien ondoriozko dirusarrerak (4. eta 7. kapituluak) / dirusarrerak.

1997ko abenduaren 31ko finantza-egoeraz, berriz:

| Adierazleak | 1997 |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina | 4.596.245 |
| Fondo likidoak | 30.026.153 |
| + Kobratzeke dagoena | 675.560 |
| – Ordaintzeke dagoena | (26.105.468) |
| Epe luzeko zorra | 14.000.000 |

Aurrekontuaren ekitaldiko emaitza negatiboa da: 18 milioi pezeta. Horren arrazoia da jasotako kapital transferentziak 20,5 milioi izan direla, eta ekitaldian egin diren inbertsioek 42 milioiak gainditu dituztela.

Zorpetze-maila ehuneko 9 da, eta mugaren azpitik dago (ehuneko 27 baita muga).

Aurrezpen garbia positiboa da: 4 milioi. Beraz, hurrengo ekitaldietako inbertsioak kontrolatu beharko dira.

Azkenik, Nafarroan 1.000 biztanletik behera zuten udalen 1996ko batez bestekoarekin konparatuz gero, hurrengo laukia ateratzen da:

| Ratioa | 1.000 bizt. beherako-udalen 1996ko batez bestekoa | Uztarroze 1997 |
|---|---|---|
| Biztanleko ohiko gastua | 55.736 | 49.033 |
| Biztanleko ohiko inbertsioae | 80.739 | 66.406 |
| Biztanleko tributu-dirusarrera | 48.838 | 37.807 |
| Zorpetze muga | 35 | 29 |
| Zorpetze maila | 10 | 8 |

Alegia, Udalaren ratioak 1996koen batez bestekoen azpitik daudela ikusten da, oihan-aprobetxamenduek 15.000 per capita jotzen duten arren. Balio horiek Udalean zerga-presio handiagoa dagoela adieraz dezakete.

**IX.3.3. Kudeaketa-gomendioak**

Ondoren jarriko ditugu kudeaketa-arlo esanguratsuenei buruzko gomendio nagusiak, Ganbararen ustez Udalak onetsi beharko lituzkeenak, zertarako-eta antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

**Aurrekontuak eta kontabilitatea**

*• Kontabilitate-sistemak hobetzea, informazio osoa eduki eta udal-jardunaren jarraipen hobea egin ahal izateko.*

*• Indarreko legediak ezartzen dituen epeak betetzea aurrekontuak onesteko.*

*• Kontabilitate hatsapenak zorrotz erabiltzea, ekitaldi-itxieran, batez ere.*

*• Hasierako aurrekontuak aldi horretako betebeharrei aurre egiteko beharrezko kredituak izan behar ditu, eta ekitaldian likidatu behar diren baliabide ekonomikoen estimazioak.*

**Inbentarioa eta ondarea**

*• Udal inbentarioa eguneratzea, ez baitute 1993tik eguneratu.*

*• Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emango duten prozedurak taxutu eta erabiltzea.*

**Langileak**

*• Dagokion ekitaldiari aplikatzea idazkariaren gastuen zati proportzionala.*

**Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea.**

*• Udalean zerbitzuak ematen ari diren langileekiko harremana formalizatzea, zerbitzu-errentamenduaren kontratuaren bidez, eta ordainagiriak eskatuz, behar bezalako baldintzekin. (botikineko arduraduna).*

*• BEZari buruzko erregelamendua betetzea, ordainagirietan zenbakia, data eta hornitzailearen eta Udalaren IFZ jasotzea.*

**Inbertsioak.**

*• Zuinketa-aktak egitea eta bideragarritasun-ziurtagiriak eskatzea, proiektu guztietan.*

*• Kredituak badirela egiaztatzeko agiriak luzatzea.*

*• Inbertsioetarako baldintzen orrietan ezartzen diren betetze-epeak betetzen direla zorrotz jarraitzea.*

**Tributu dirusarrerak**

*• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak; horretaz gain, dagokion argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.*

*• Obra egiteko aurrekontuen aurkezpena eskatzea, obra-baimena eman baino lehen; hartara, eraikuntzen gaineko zerga likida daiteke, behin-behinekoz.*

*• Oihan-aprobetxamenduen zenbatekoa honela kontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren unean.*

*• Zerga-ordenantzak zer ekitalditan sartuko diren indarrean, ekitaldi horren urtarrilaren 1a baino lehenago argitaratzea.*

**Dirulaguntzen ondoriozko dirusarrerak**

*• Itxieran, ekitaldiaren emaitza doitua ateratzeko, dagozkion doiketak egitea, finantzaketaren desbideraketa dela-eta.*

*• Ohiko gastuak finantzatzeko jaso diren dirulaguntzak ohiko transferentzietan kontabilizatzea.*

**Diruzaintza**

*• Ahalik eta gehien murriztu kontu korronteen eta finantza-entitateen kopurua, eta saldo sinbolikoak dituzten kontuak kentzea.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## X. BIDANKOZEKO UDALA

### X.1. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Bidankozeko Udalaren 1997ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa aztertu dugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

**X.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionean.**

1997ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzearen egoerak nahiko ongi islatzen ditu fiskalizatutako ekitaldian Udalak burutu dituen eragiketak, salbuespen hauekin: aldi horretan izandako gastu batzuk –6.365.529 pezeta– ez dira kontabilizatu; horietatik 6.025.945 pezeta inbertsio errealei dagozkie, eta atxikita dituzte dirulaguntzen ondoriozko dirusarrera batzuk, 4.650.019 pezeta, alegia. Beste alde batetik, baso-aprobetxamenduei dagozkien 663.456 pezetako dirusarrerak ere ez dira jaso.

**X.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondareari buruzko kontabilitaterik ez dagoenez, eta 1993tik datorren udal-inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1997ko abenduaren 31n udalak zeukan ondare-egoerari buruz.

**X.1.3. Legezkotasuna**

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz burutzen da, aurrekontu-alorreko arau-hauste batzuk agertu diren arren.

**X.1.4. Finantza- eta ekonomia-egoera**

Bidankozeko Udalak finantza-egoera saneatua erakusten du 1997ko abenduaren 31n. Aurrezki garbia 3,7 milioi pezeta da, eta diruzaintzako gerakina, 13,6 milioi da.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa,** Bidankozeko Udalak:

• Egokiro kudeatzen ditu bere aurrekontuak, administrazioaren ikuspuntutik, baina hauek behar ditu:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreren sortzapen hatsapena zuzen aplikatzea, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

• Finantzaketaren ikuspuntutik, egoera saneatua du, ez baitu zorpetzerik izan, 1997ra arte: 7,6 milioiko mailegua eskuratu baitzuen, inbertsioetarako.

X.2. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

1997ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

| Gastuen kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen gastuak | 643.955 | 643.955 | 611.655 | 95 |
| 2.. Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea | 5.513.460 | 5.513.460 | 3.393.374 | 62 |
| 3. Korrituak | 325.000 | 325.000 | 103.179 | 32 |
| 4. Ohiko transferentziak | 2.251.000 | 2.251.000 | 1.816.085 | 81 |
| 6. Inbertsio errealak | 64.596.228 | 64.596.228 | 47.553.590 | 74 |
| Guztira | 73.328.643 | 73.328.643 | 53.477.863 | 73 |

| Dirusarreren kapituluak | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Likidaturiko eskubideak | Betetzea % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 1.070.000 | 1.070.000 | 1.164.381 | 109 |
| 2. Zeharkako zergak | 867.976 | 867.976 | 468.935 | 54 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 3.763.629 | 3.763.629 | 4.455.715 | 118 |
| 4. Ohiko transferentziak | 2.845.000 | 2.845.000 | 2.923.051 | 103 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 300.000 | 300.000 | 610.508 | 204 |
| 7. Kapital transferentziak | 51.125.083 | 51.125.083 | 43.943.991 | 86 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 7.572.787 | 7.572.787 | 7.726.991 | 102 |
| Guztira | 67.544.475 | 67.544.475 | 61.293.572 | 91 |

X.3. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

**X.3.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak**

1997ko ekitaldirako aurrekontuak 73 milioi jotzen duten gastu-kredituak ditu, hasieran. Dirusarreren aurreikuspenek 67 milioi aipatu dituzte. 1997ko apirilaren 21ean onetsi zituen aurrekontuak Osoko Bilkurak.

Aurrekontua orekatzeko, dirusarreren erresultak daude: 5,8 milioi. Ez dute kreditu-aldaketarik egin, ekitaldian zehar.

Aitorturiko betebeharrek 53 milioi egiten dute, eta ehuneko 73ko betetze-maila.

Hona osaketa, portzentaien arabera:

| Gastuak | Portzentaia |
|---|---|
| Funtzionamendukoak | 10,8 |
| Inbertsiokoak | 89 |
| Finantza-zamakoak | 0,2 |
| Guztira | 100 |

Ageri denez, inbertsioak gastu guztien ehuneko 89 dira –47,5 milioi–; Udalaren inbertsio-ahalegina erakusten du horrek.

Hona Udaleko langileak, 1997ko abenduaren 31n:

• Idazkaria (funtzionarioa), Burgin eta Garden ere ari da.

Dirusarreren betetze-maila ehuneko 91 izan da. Kapital transferentzien ondorioz aitortu diren eskubideak 44 milioi izan dira. Finantza-entitate bati ere eskatu zaio 7,6 milioiko mailegua.

Hona dirusarreren osaketa, portzentaien arabera:

| Dirusarrerak | Portzentaia |
|---|---|
| Tributuzkoak | 10 |
| Ohiko transferentzietakoak | 76 |
| Ondarekoak | 14 |
| Guztira | 100 |

Transferentzietatik heldu diren dirusarrerekiko menpekotasuna oso handia da: Udalak aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 77 pta. iturri horretatik heldu dira.

1997ko ekitaldiak 7,8 milioi pezetako aurrekontu-emaitza positiboa du, erresultak kontuan izan gabe.

1997ko abenduaren 31n, ez dira ordaindu gabeko kopuruak aintzat hartu, eta kobratzeke dauden onetsitako eskubideek 220.361 pezeta egiten dute: 1997an likidatu diren tributu-kontzeptuei dagozkie, funtsean.

**X.3.2. 1997ko abenduaren 31ko finantza-egoera**

Finantza-egoera erabat saneatua erakusten du Bidankozeko Udalak 1997ko abenduaren 31n.

Ondoren jarriko ditugu hainbat ratio eta magnitude, egoera ekonomikoa erakustearren:

| Ratio eta magnitudeak | 1997 |
|---|---|
| Aurrekontu-emaitza | 7.815.709 PTA. |
| Aurrezpen gordina (1) | 3.801.476 PTA. |
| Aurrezpen garbia (2) | 3.698.297 PTA. |
| Zorpetze maila (3) | %1 |
| Zorpetze muga (4) | %39 |
| Biztanleko gastu publikoa | 457.076 PTA. |
| Biztanleko inbertsio-gastuak | 406.441 PTA. |
| Biztanleko tributu-dirusarrerak (5) | 52.043 PTA. |
| Dirulaguntzekiko menpekotasuna (6) | %76 |
| Gastu guztien % zenbat dira langile gastuak | %1 |
| % Gastos de inversiones el guztira de gastos | %89 |
| Gastu guztien % zenbat da finantza-zama | %0,2 |

1) Ohiko dirusarrerak - funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarreratzat hartu ditugu dirusarreren 1. eta 5. kapituluen bitartekoak, eta funtzionamendu gastutzat, gastuen 1., 2. eta 4. kapituluak.
2) Aurrezpen gordina - finantza-zama. Finantza-zamatzat hartu dugu gastuen 3. eta 9. kapituluen batuketa.
3) Finantza-zama / ohiko dirusarrerak x 100
4) Aurrezpen gordina / ohiko dirusarrerak x 100
5) Tributu-dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapituluak) / biztanle kopurua.
6) Transferentzien ondoriozko dirusarrerak (4. eta 7. kapituluak) / dirusarrerak.

1997ko abenduaren 31ko finantza-egoeraz, berriz:

| Adierazleak | 1997 |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina | 13.650.323 |
| Fondo likidoak | 13.429.962 |
| + Kobratzeke dagoena | 220.361 |
| – Ordaintzeke dagoena | 0 |
| Epe luzeko zorra | 7.572.787 |

Aurrekontuaren emaitza doitua eta aurrezki garbia positiboak dira, argi eta garbi: 7,8 eta 3,6 milioi, hurrenez hurren.

Zorpetze-maila zorpetze-muga baino askoz apalagoa da: ehuneko 1.

Diruzaintzako gerakin positiboak 13,6 milioi egin du, eta garrantzizko finantza-iturri izango da 1998rako.

Azkenik, Nafarroan 1.000 biztanletik behera zuten udalen 1996ko batez bestekoarekin konparatuz gero, hurrengo laukia ateratzen da:

| Ratioa | 1.000 bizt. beherako-udalen 1996ko batez bestekoa | Bidankoze 1997 |
|---|---|---|
| Biztanleko ohiko gastua | 55.736 | 50.635 |
| Biztanleko ohiko inbertsioae | 80.739 | 82.244 |
| Biztanleko tributu-dirusarrera | 48.838 | 52.043 |
| Zorpetze muga | 35 | 39 |
| Zorpetze maila | 10 | 1 |

Udalaren balioak batez bestekotik hurbil daude, zorpetze-maila izan ezik, hobea baita.

**X.3.3. Kudeaketa-gomendioak**

Ondoren jarriko ditugu kudeaketa-arlo esanguratsuenei buruzko gomendio nagusiak, Ganbararen ustez Udalak onetsi beharko lituzkeenak, zertarako-eta antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

**Aurrekontuak eta kontabilitatea**

*• Kontabilitate-sistemak hobetzea, informazio osoa eduki eta udal-jardunaren jarraipen hobea egin ahal izateko.*

*• Indarreko legediak ezartzen dituen epeak betetzea aurrekontuak onesteko.*

*• Kontabilitate hatsapenak zorrotz erabiltzea, ekitaldi-itxieran, batez ere.*

*• Gastu-dirusarreren aurreikuspen orekatua egitea.*

**Inbentarioa eta ondarea**

*• Udal inbentarioa eguneratzea, ez baitute 1993tik eguneratu.*

*• Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emango duten prozedurak taxutu eta erabiltzea.*

**Inbertsioak**

*• Zuinketa-aktak egitea eta bideragarritasun-ziurtagiriak eskatzea, proiektu guztietan.*

*• Kredituak badirela egiaztatzeko agiriak luzatzea.*

*• Behin betiko fidantzak eskatu, obrak esleitu eta gero.*

*• Inbertsioetarako baldintzen orrietan ezartzen diren betetze-epeak betetzen direla zorrotz jarraitzea.*

*• Inbertsioak egiterakoan, esleipen prezioekiko desbideraketak kontrolatu, eta indarreko legediak horri buruz ezarri duena bete.*

**Tributu dirusarrerak**

*• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributukontzeptuen erroldeak; horretaz gain, dagokion argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta gainkargua ezarriko dira.*

*• Oihan-aprobetxamenduen zenbatekoa honela kontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren unean.*

*• Nominako gizarte segurantzaren atxikipena ABILen (Aurrekontuaren Balio Independente eta Laguntzaileak) kontabilizatzea.*

*• Zerga-ordenantzak zer ekitalditan sartuko diren indarrean, ekitaldi horren urtarrilaren 1a baino lehenago argitaratzea.*

**Dirulaguntzen ondoriozko dirusarrerak**

*• Itxieran, ekitaldiaren emaitza doitua ateratzeko, dagozkion doiketak egitea, finantzaketaren desbideraketa dela-eta.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## XI. ERRONKARI IBARREKO BATZARREA

### XI.1. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren barruan, Erronkari Ibarreko Batzarreak 1997ko ekitaldiari buruz prestatu dituen kontuak aztertu ditugu.

Sektore Publikoko kontuen ikuskaritza egiteko Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako arau eta prozedurak aplikatu ditugu gure azterketan.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

**XI.1.1. Ekitaldiko kontuak direla-eta.**

Zor-hartzekoen zerrenda batean jasotzen dira, eskuz, gertakari ekonomikoak, ohiko ereduaren arabera; aipatu eredu hori, hala ere, ez zaio Nafarroako toki entitateei aplika dakiekeen arautegiari egokitzen.

Jasotako datuen eta finantza-entitateek emandako informazioen arteko berdinkatzerik ez dagoenez, eta bankuen erregistro-liburu nagusirik ez denez, 5.517.991 pezetako aldea atera da, eta ezin izan dugu argitu. Beraz, ezin izan dugu iritzirik eman aurkeztu dizkiguten kontuen arrazoizkotasunari buruzko.

**XI.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondareari buruzko kontabilitaterik ez dagoenez, eta 1993tik datorren udal-inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ezin dugu iritzirik eman 1997ko abenduaren 31n Batzarreak zeukan ondare-egoerari buruz.

**XI.1.3. Legezkotasuna**

Batzarrearen jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz burutzen da, salbuespen hauekin: informazio kontablea ez zaio aurrekontu-araudiari egokitzen; arauhauste batzuk ere badira inbertsioen alorrean.

**XI.1.4. Finantza- eta ekonomia-egoera**

Erronkari Ibarreko Batzarreak finantza-egoera saneatua erakusten du, itxura batean, 1997ko abenduaren 31n. Ekitaldiko gastu-dirusarreren zerrendan, halere, 24 milioiko defizita erakusten du. Diruzaintzan eskuragarri dagoena, alabaina, 30 milioi da, eta zorpetzea apal samarra da: 7,8 milioi.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa,** Erronkari Ibarreko Batzarreak:

• Ez ditu bere gastu-dirusarrerak behar bezala jasotzen, eta hauek egin behar ditu:

a) Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

b) Gastu-dirusarreren sortzapen hatsapena zuzen aplikatu, alegia, egiten direnean kontabilizatu, eta ez ordaindu edo kobratzen direnean.

c) Diruzaintzako fondoen barne kontrolerako gutxieneko prozedurak ezarri.

• Finantzaketaren ikuspuntutik, ekitaldiko gastu eta dirusarreren arteko defizita ageri da, eta diruzaintzako baliabide esanguratsuak.

## XI.2. FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

Ondoren jarriko dugu, Erronkari Ibarreko Batzarrearen zor-hartzekoen zerrenda, kapituluka eta artikuluka

| ZOR | | |
|---|---|---|
| 1. KAPITULUA. PROPIOENAK | | |
| 1go. artikulua.- Propioen orria | 3.192 | |
| 2gn. artikulua.- Banku-kontuen korrituak | 1.644.618 | 1.647.810 |
| 2. KAPITULUA. MENDIAK | | |
| 1go. artikulua.- Oihanak | 3.643.818 | |
| 2gn. artikulua.- Aparteko mozketak | 10.902.529 | |
| 3gn. artikulua.- Atze (arbol) idor eta apurtuak | 679.790 | |
| 5gn. artikulua.- Zatiak eta bortuak | 158.770 | 15.384.907 |
| 3. KAPITULUA.- KONTRIBUZIOAK | | |
| 3gn. artikulua.- Diputazioaren abonoak | 15.306.917 | 15.306.917 |
| 4. KAPITULUA.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA | | |
| 1go. artikulua.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua | 437.411 | 437.411 |
| 5. KAPITULUA.- GORDAILUAK ETA FIDANTZAK | | |
| 1go. artikulua.- Fidantzak eta gordailuak | 2.449.229 | 2.449.229 |
| 6. KAPITULUA.- APARTEKOAK | | |
| 1go. artikulua.- Aparteko dirusarrerak | 672.287 | 672.287 |
| 7. KAPITULUA.- ESKI ESTAZIOA | | |
| 1go. artikulua.- Larra-Belagoako eski-zentroa | 1.116.540 | 1.116.540 |
| ZORRAREN BATURA | | 37.015.101 |

| HARTZEKO | | |
|---|---|---|
| 1. KAPITULUA.- BATZARRE NAGUSIA | | |
| 1go. artikulua.- Langileen soldata | 11.793.097 | |
| 2gn. artikulua.- Bulego gastuak | 933.493 | |
| 3gn. artikulua.- Harpidetzak eta iragarkiak | 39.846 | |
| 4gn. artikulua.- Batzarrearen eraikinak zaintzea | 6.624.440 | |
| 5gn. artikulua.- Gaiak eta altzariak | 331.157 | |
| 6gn. artikulua.- Batzarrearen eta Bardearen bilerak | 1.797.095 | |
| 7gn. artikulua.- Argia eta berokuntza. | 361.716 | 21.880.844 |
| 3. KAPITULUA.- OBRAK | | |
| 1go. artikulua.- Dirulaguntza, obrako materialak | 1.221.413 | |
| 2gn. artikulua.- Oihanbideetako obrak | 22.043.956 | 23.265.369 |
| 4. KAPITULUA.- MENDIAK | | |
| 1go. artikulua.- Mugapenak, garbiketak, markazioak | 3.142.377 | |
| 2gn. artikulua.- Basozainentzako dirulaguntzak | 7.000 | 3.149.377 |
| 5. KAPITULUA.- M. ETA S. ALORRETAKO LAGUNTZA | | |
| 1go. artikulua.- Gizarte Segurantza, Mutualitatea | 3.852.379 | |
| 2gn. artikulua.- Eskola-koloniak | 350.000 | |
| 3gn. artikulua.- Hainbat laguntza | 2.991.169 | 7.193.548 |
| 6. KAPITULUA.- UDALAK | | |
| 1go. artikulua.- Dirulaguntzak | 60.556 | |
| 2gn. artikulua.- Kontribuzioak | 56.336 | |
| 3gn. artikulua.- Idazkarientzako dirulaguntzak | 24.500 | 141.392 |
| 7. KAPITULUA.- KARGAK | | |
| 2gn. artikulua.- Zergak eta zehapenak | 1.306.094 | 1.306.094 |
| 8. KAPITULUA.- ESKI ESTAZIOA | | |
| 1go. artikulua.- Eski zentroaren gastuak | 1.724.538 | 1.724.538 |
| 9. KAPITULUA.- ITZULKETAK | | |
| 1go. artikulua.- Behar ez bezalako kobrantzak | 9.000 | |
| 2gn. artikulua.- Fidantzak itzultzea | 403.620 | |
| 3gn. artikulua.- Diputazioarentzako ordainketak | 601.044 | 1.013.664 |
| 10. KAPITULUA.- LURROROTAKO IBILGAILUA | | |
| 1go. artikulua.- Lurrorotakoaren gastuak | 179.565 | 179.565 |
| 11. KAPITULUA.- USTEKABEKOAK | | |
| 1go. artikulua.- Ustekabeko gastuak | 901.099 | 901.099 |
| HARTZEKOAREN BATURA | | 60.755.490 |

## XI.3. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

### XI.3.1. Iruzkin orokorrak

Batzarreak ez du gastu-dirusarreren aurrekonturik egiten bere jarduera garatzeko; aitzitik, kobraketa-ordainketak kapitulu-artikulutan kontabilizatzea baino ez du egiten, eta kapitulu-artikulu horiek ez dute inongo zerikusirik aurrekontuei buruzko arauek garatzen dutenekin. Erregistroarekin bat, eta Iritziari buruzko atala kontuan hartuta, hurrengoak azpimarratuko ditugu:

Ekitaldian kontabilizatu diren gastuek 60.755.490 pezeta egiten dute; dirusarrerek, aldiz, 37.015.101 pezeta egiten dute. Datuok aurrean, 23.740.389 pezetako emaitza negatiboa aterako genukeen, diruzaintzako izakinekin finantziatu bada ere.

Bankuek bidalitako informaziotik ateratzen denaren arabera, diruzaintzako fondo likidoek 36.072.046 pezeta egiten dute 1997ko abenduaren 31n; egun bereko kontabilitatetik ateratzen denetik, berriz, 30.554.055 pezeta egiten dute aipatu fondoek. Ezin izan dugu 5.517.991 pezetako alde hori argitu. Hala ere, abenduaren 31n egindako ordainketatzat jo ditu Batzarreak 1998ko ekitaldian egindako hainbat ordainketa.

Hona ekitaldian izandako gasturik garrantzizkoenak: oihanbideetako lanetan, 22 milioi; langileen gastuak, 11,8 milioi; eta ibarreko etxea atontzea, 6,6 milioi.

Hona Batzarrearen zerbitzuan ari diren langileak, 1997ko abenduaren 31n:

• Idazkaria (lan kontratukoa)

• Gizarte laguntzailea (lan kontratukoa)

• Etxez etxeko laguntza-zerbitzurako bi langile (aldi baterako lan kontratukoak, lanaldiaren zati baterako)

• Basozaina (nekazaritza araubideko kontratatua)

Oihan aprobetxamenduak dira Batzarrearen dirusarrera-iturri nagusia; izan ere, 1997ko ekitaldian zehar, 15,4 milioi kobratu dira horregatik, dirusarrera guztien ehuneko 42, alegia; Nafarroa-

ko Gobernuaren dirulaguntzak ere jaso dira –15,3 milioi–, oihan lanak eta gizarte zerbitzu oinarrizkoa finantziatzeko.

Beste alde batetik, 48 milioi pezeta daude kobratzeke, oihan aprobetxamenduen ondorioz: 1998ko ekitaldian kobratuko dira.

Nafarroako Gobernutik jaso diren maileguen ondorioz ordaindu behar direnak 7.840.597 pezeta dira; horietatik 7.170.241 itzultzeko aurrerakin bati dagozkio, elurra zapaltzeko makina bat erosteko; gainerakoak, larreak hobetzeko bi maileguri dagozkie.

Beste alde batetik, Batzarreak baditu “Papelera de Navarra”ren akzio batzuk, zeinen nominalak 4,2 milioi egiten duen –1997ko abenduaren 31ko balorazioa 8,4 milioi bazen ere–, eta epeko ezarpenak, 0,7 milioitan.

**XI.3.2. Kudeaketa-gomendioak**

Ondoren jarriko ditugu kudeaketa-arlo esanguratsuenei buruzko gomendio nagusiak, Ganbararen ustez Udalak onetsi beharko lituzkeenak, zertarako-eta antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

**Aurrekontuak eta kontabilitatea**

*• Aurrekontu orokor bakarra egin eta onestea, urtero. Hurrengoen adierazpen zenbakitu, bateratu eta sistematikoa beharko luke: dagokion ekitaldi ekonomikoan gehienez aitor daitezkeen betebeharrena, eta ekitaldi horretarako sortzapena aurreikusi zaien eskubideena. Aurrekontu ekitaldia eta urte naturala bat etor daitezela, eta Kontabilitate Publikoan eskuarki onetsitako hatsapenak aplikatzea.*

*• Kontabilitatea informatizatzea.*

**Inbentarioa eta ondarea**

*• Udal inbentarioa eguneratzea, ez baitute 1993tik eguneratu.*

*• Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emango duten prozedurak taxutu eta erabiltzea.*

*• Ondare higiezin ororen errentamendua dagokion kontratuarekin eustea.*

**Langileak**

*• Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua arautzen duen Foru Legeari egokitzea Batzarreko langileen jasotzen dituzten osagarriak.*

*• Langileen soldata-ordainketen kopuru gordina kontabilizatzea. PFEZaren eta Gizarte Segurantzaren atxikipenak dirusarreratzat hartzea ABILen atal egokian.*

**Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea.**

*• Batzarrean zerbitzuak ematen ari diren langileekiko harremana formalizatzea, zerbitzu-errentamenduaren kontratuaren bidez, eta ordainagiriak eskatuz, behar bezalako baldintzekin. (Bulegoetako garbitzaileak, lerrondoak markatzea).*

*• BEZari buruzko erregelamendua betetzea, ordainagirietan zenbakia, data eta hornitzailearen eta Udalaren IFZ jasotzea.*

**Inbertsioak.**

*• Baldintza tekniko eta administratiboen orriak idaztea, obra-kontratazio guztietarako.*

*• Zuinketa-aktak egitea eta bideragarritasun-ziurtagiriak eskatzea, proiektu guztietan.*

*• Kredituak badirela egiaztatzeko agiriak luzatzea.*

*• Baldintzen orrietan esaten den dokumentazioa eskatzea obren esleipendunei, kontratazio guztietan.*

*• Esleipen prezioekiko desbideraketak kontrolatu obra-likidazioetan, eta Kontratuei buruzko Foru Legeak ezarri duena bete.*

*• Lanbidedunei ordaintzen zaien kopuru gordina –ordainagirian jasotzen dena– eta PFEZaren atxikipena ABILen kontabilizatzea, dirusarrera gisa.*

**Tributu dirusarrerak**

*• Oihan-aprobetxamenduen zenbatekoa honela kontabilizatu behar da: aitorturiko eskubide bezala, esleipenaren unean.*

**Diruzaintza**

*• Diruzaintzako saldoetan ageri den aldea argitu, edo, hala bada, erregularizatu.*

*• Ahalik eta gehien murriztu kontu korronteen eta finantza-entitateen kopurua, eta saldo sinbolikoak dituzten kontuak kentzea.*

*• Kutxa-zenbaketak egitea, aldiro, eta dokumentuz erasota utzi.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

# “Erronkari Ibarreko toki zerbitzu publikoak emateko gastuen arrazoizkotasun ekonomikoaren azterketa”ri buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko abenduaren 15ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako “Erronkari Ibarreko toki zerbitzu publikoak emateko gastuen arrazoizkotasun ekonomikoaren azterketa”ri buruzko fiskalizazio txostena, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## “Erronkari Ibarreko toki zerbitzu publikoak emateko gastuen arrazoizkotasun ekonomikoaren azterketa”ri buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (34. or.).

**II.** Helburua (34. or.).

**III.** Norainokoa eta mugak (34. or.).

**IV.** Ibarreko udalek eta Batzarre Nagusiak emandako zerbitzu publikoen azterketa (35. or.).

IV. 1. Hezkuntza (38. or.).

IV.2. Gizarte Zerbitzuak (38. or.).

IV.3. Hiri hondakin solidoak (38. or.).

IV.4. Ur horniketa (39. or.).

IV.5. Kirolak (39. or.).

IV.6. Kultura (40. or.).

IV.7. Eskiko eskola-kanpaina (41. or.).

IV.8. Indarretxeak (41. or.).

IV.9. Mendiak (41. or.).

IV.10. Egitura (42. or.).

**V.** Ondorioak eta gomendioak (44. or.).

### I. SARRERA

Erronkari Ibarra Nafarroako iparraldean dago, Iruñetik 90 kilometrotara. Hurrengo udalak daude ibar horretan: Uztarroze (283 biztanle), Izaba (542 biztanle), Urzainki (111 biztanle), Erronkari (365 biztanle), Garde (201 biztanle), Bidankoze (117 biztanle) eta Burgi (253 biztanle).

Zazpi herri horiek osatzen dute Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, eta Erronkari Ibarreko Batzarre Nagusia da Mankomunitate hori osatzen duten ondasun guztien ordezkari eta administrari egiazkoa.

Txosten honekin, Kontuen Ganbarak buru ematen dio Erronkari ibarreko azterketari; izan ere, osatu egiten baitu 1997ko aurrekontu eta kontu orokorren gaineko fiskalizazio finantzarioaren lana, eta lehenbiziko aldiz ematen du ikuspegi orokor bat Ibarreko toki entitateek garatu dituzten jardueren eta haien arrazoizkotasunari buruz.

### II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legeari, eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Ibarreko udalek eta Batzarre Nagusiak emandako zerbitzu publikoen azterketari ekin diogu.

Lan honek helburu bikoitza du:

a) Erronkari Ibarra osatzen duten toki entitate bakoitzak ematen dituen zerbitzu publiko oinarrizkoen kostua finkatu, aztertu eta zenbatestea.

b) Aurreko diagnostikoa gogoan, eta kudeaketa publikoan lehenetsi behar den arrazionaltasun hatsapena aintzat hartuta, gomendio eta iradokizun zenbait proposatzea, zerbitzu publikoak kostua eta kalitate-maila egokia uztartuz emateko.

Txosten honek, ostera, ez du Ibarreko zerbitzuak ematea berrantolatzeko proposamen zehatzak landu eta taxutzea helburu; izan ere, zerikusia duten entitate eta herritarrei baino ez dagokien erabakia delakoan baikaude.

### III. NORAINOKOA ETA MUGAK.

Burgi, Garde, Izaba, Erronkari, Urzainki, Uztarroze eta Bidankozeko udalek eta Erronkariko Batzarreak ematen dituzten zerbitzuen arrazionaltasunari buruzko azterketa jasotzen da ondoren aurkeztuko dugun txosten honek.

Udalek zein Batzarreak eman eta Ibarreko herritarrek bere esku dituzten prestazio eta jarduerak jo ditugu zerbitzutzat.

Entitate txikiak direnez, zail da zerbitzuak aztertu eta identifikatzea; hori dela eta, hurrengo funtsezko zerbitzuak aztertu ditugu txosten honetan: Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Hiri hondakin solidoak, Ur horniketa, Kirolak, Kultura, Eskiko eskola-kanpaina, Indarretxeak, Mendiak eta Egitura.

Aurrekontu-kontabilitatetik atera ditugu zerbitzu bakoitzari egotzitako kostuak, egitura-banaketa eta amortizazioen kalkulua kontuan izan gabe.

Aztertu ditugun gainerako zerbitzuei ezin egotzizko gastuak jo ditugu egituratzat.

Azterlan hau burutzeko, Ibarreko udalek eta Batzarreak emandako informazioa kualitatiboa erabili dugu –elkarrizketak egin ditugu–, ohiko gastuei buruzko informazio kuantitatiboarekin batera, kontabilitate-erregistroetatik aterea.

Hurrengoek **baldintzatu edo mugatu** dute txosten hau:

• Sailkapen funtzionalaren garapena kapituluka egiten da, eta horrek zaildu egiten du zerbitzukako kostua ateratzea.

• Entitate bakoitzaren aurrekontuak murritzak dira, eta zail egiten da gastuak zerbitzuei egoztea.

• Amortizazioak dira zerbitzuen kostuaren funtsezko zati bat. Eguneratutako inbentariorik ez dagoenez, ezin izan zaizkio amortizazio horiek zerbitzu bakoitzari egotzi; ondorioz, beraz, zerbitzu bakoitzaren amortizazioak kontuan hartuz gero, kostuen kalkulua nabarmen aldatu daiteke.

• Langileen dedikazioa kontrolatzeko sistemarik ez dagoenez, ezinezko da entitateotan zerbitzuak ematen dituzten pertsonei egotz dakiekeen denbora era fidagarrian banatzea; ondorioz, egituratzat jo ditugu langileen gastuak, funtsean.

• Ibarreko Batzarreak eskuratu digun kontubanakatzeak ezinezko egiten du ematen dituzten zerbitzuen kostuak aztertzea; hortaz, egituratzat jo ditugu gizarte zerbitzuez eta mendiez bestelakoak.

Bi arlo nagusitan egituratu dugu txostena: lehenbizikoan, aztertu ditugun zerbitzuen kostua finkatu eta zenbatetsi dugu; bigarrenean, hainbat ondorio eta gomendio atera dugu.

Zelaiko lana 1998ko ekaina eta abuztuaren bitartean egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Ibarreko udalen eta Batzarre Nagusiaren langile guztiei, beraien lankidetzak gure lana erraztu egin duelako.

## IV. IBARREKO UDALEK ETA BATZARRE NAGUSIAK EMANDAKO ZERBITZU PUBLIKOEN AZTERKETA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 29 eta 31. artikuluen arabera, Nafarroako udalerriek eskumen batzuk dituzte, eta zerbitzu batzuk eman behar dituzte; hain zuzen ere, legedia orokorrak gutxienekotzat ezarri dituen haiek.

Hartara, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak agintzen duenaren arabera, herritarren beharrizanak betetzeko behar diren zerbitzuak sustatu eta eman behar ditu. Lege horren 25 eta 26. artikuluetan, hain zuzen:

“25. artikulua.

Udalak, bere interesak kudeatzeko, eta bere eskumenen esparruan, jarduera-mota guztiak bultza ditzake eta zerbitzu publiko oro eman, herritarren beharrizanak eta asmoak betetzen laguntzearren.

Hurrengo eskumenak erabiliko ditu Udalak, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedien arabera erabili ere:

a) Toki publikoetako segurtasuna.

b) Ibilgailuen eta pertsonen joan-etorrien antolamendua herribideetan.

c) Herri-babesa, suteak eragotzi eta itzaltzea.

d) Hirigintzaren antolamendu, kudeaketa, gauzapena eta diziplina; etxebizitzak sustatu eta kudeatzea; parkeak eta lorategiak, herribideak, hiribideak eta baserribideak.

e) Arte-historiazko ondarea.

f) Ingurugiroaren babesa.

g) Merkatuak, hiltegiak, azokak eta erabiltzaileen eta kontsumitzaileen babesa.

h) Herri-osasungarritasunaren babesa.

i) Oinarrizko osasun-laguntzaren kudeaketan parte hartzea.

j) Hilerriak eta hileta-zerbitzuak.

k) Gizarte-zerbitzuak; pertsona marjinatuak oneratu eta berriro gizarteratzeko zerbitzuak.

l) Herriko argiak eta ur-hornidura; estolderia eta hondakin-uren tratamendua, kaleetako garbiketa eta hondakinen tratamendua

m) Bidaiarientzako herri-garraioa

n) Kulturako nahiz kiroleko jarduerak; kultur etxeak eta kiroldegiak; astialdia betetzea; turismoa.

o) Irakaskuntza programatzen parte hartzea; herri-ikastetxeak mantentzea; horien kudeaketa-organoetan esku hartzea eta derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzen parte hartzea."

"26. artikulua.

Udalek, bakarrean edo elkarturik, hurrengo zerbitzuak eman beharko dituzte, beti ere:

a) Herriko argiak, hilerria, hondakinen bilketa, kaleetako garbiketa, edateko uraren hornidura, estolderia, biztanleguneetako sarbideak, herribideen zoladura eta janari-edarien kontrola".

Ibarreko Udal guztiek ematen dituzte legez dagozkien gutxieneko zerbitzuak; azterketa honen ondorioetarako, hala ere, egituratzat jo dira horietako batzuk.

Hurrengo orrietako laukietan aurkeztuko ditugu aipatu entitateetan aztertu ditugun zerbitzuei dagozkien gastu-dirusarreren laburpenak.

## GASTUAK

| Entitatea | Hezkuntza | Gizarte Zerbitzuak | Hiri hondakin solidoak | Ur horniketa | Kirolak | Kultura | Eskiko eskola-kanpaina | Indarretxea | Mendiak | Egitura | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Burgi | 0 | 0 | 1.878.069 | 586.683 | 86.155 | 1.856.494 | 0 | 0 | 232.352 | 9.131.385 | 13.771.138 |
| Garde | 0 | 0 | 1.076.460 | 11.020 | 205.900 | 4.574.647 | 0 | 10.521 | 168.520 | 8.990.750 | 15.037.818 |
| Izaba | 1.051.264 | 0 | 4.553.406 | 591.630 | 955.449 | 9.391.330 | 98.500.545 | 27.053.709 | 275.080 | 25.307.147 | 167.679.560 |
| Erronkari | 2.621.625 | 0 | 2.179.221 | 353.042 | 840.983 | 5.410.856 | 0 | 0 | 74.690 | 15.393.079 | 26.873.496 |
| Urzainki | 0 | 0 | 767.496 | 0 | 0 | 1.357.480 | 0 | 659.538 | 45.539 | 5.016.969 | 7.847.022 |
| Uztarroze | 0 | 0 | 1.345.344 | 643.057 | 103.790 | 1.195.675 | 0 | 0 | 109.858 | 9.220.256 | 12.617.980 |
| Bidankoze | 0 | 0 | 645.297 | 388.197 | 0 | 729.074 | 0 | 0 | 39.985 | 4.121.740 | 5.924.293 |
| Ibarreko Batzarrea | 0 | 7.992.758 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 4.843.940 | 18.877.976 | 31.714.674 |
| Guztira | 3.672.889 | 7.992.758 | 12.445.293 | 2.573.629 | 2.192.277 | 24.515.556 | 98.500.545 | 27.723.768 | 5.789.964 | 96.059.302 | 281.465.981 |

## DIRUSARRERAK

| Entitatea | Hezkuntza | Gizarte Zerbitzuak | Hiri hondakin solidoak | Ur horniketa | Kirolak | Kultura | Eskiko eskola-kanpaina | Indarretxea | Mendiak | Egitura | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Burgi | 0 | 0 | 1.933.932 | 775.954 | 0 | 799.925 | 0 | 0 | 3.688.785 | 13.625.696 | 20.824.292 |
| Garde | 0 | 0 | 1.081.080 | 363.156 | 260.606 | 1.178.989 | 0 | 403.346 | 12.851.654 | 10.823.423 | 26.962.254 |
| Izaba | 0 | 0 | 5.358.969 | 2.513.978 | 1.134.650 | 19.732.496 | 97.057.045 | 41.665.859 | 13.115.271 | 38.820.703 | 219.398.971 |
| Erronkari | 2.870.792 | 0 | 2.270.268 | 536.815 | 91.969 | 502.502 | 0 | 0 | 7.338.578 | 23.494.244 | 37.105.168 |
| Urzainki | 0 | 0 | 788.788 | 167.241 | 0 | 33.854 | 0 | 2.638.499 | 4.174.291 | 6.266.658 | 14.069.331 |
| Uztarroze | 0 | 0 | 1.345.344 | 377.176 | 174.902 | 266.600 | 0 | 0 | 4.249.029 | 12.325.718 | 18.738.769 |
| Bidankoze | 0 | 0 | 648.648 | 232.747 | 0 | 94.750 | 0 | 0 | 2.458.558 | 6.187.887 | 9.622.590 |
| Ibarreko Batzarrea | 0 | 3.530.373 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 15.384.907 | 4.769.326 | 23.684.606 |
| Guztira | 2.870.792 | 3.530.373 | 13.427.029 | 4.967.067 | 1.662.127 | 22.609.116 | 97.057.045 | 44.707.704 | 63.261.073 | 116.313.655 | 370.405.981 |

Ondorengo idazatietan garatuko ditugu aztertutako zerbitzuak, banan-banan garatu ere.

## IV.1. HEZKUNTZA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen arabera, udalek parte hartuko dute irakaskuntza programatzen; hezkuntza-administrazioaren lankide izanen dira herri-ikastetxeak sortu, eraiki eta mantentzen; horien kudeaketa-organoetan esku hartuko dute eta derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzen parte hartuko.

Izaba eta Erronkariko udaletan egin dituzte eskola-kontzentrazioak. Lehen mailako irakaskuntza ematen dute Izabako ikastetxe publikoan; Erronkarin, aldiz, lehen eta bigarren mailakoak: 35 eta 88 ikasle daude ikastetxe horietan, hurrenez hurren. Zaragozako probintziako Salvatierra de Esca eta Sigüesko ikasleak ere hartzen ditu Erronkariko ikastetxeak, ibarrekoaz gain.

Ondorengo laukian aurkeztuko ditugu Udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak:

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Izaba | 1.051.264 | 0 | -1.051.264 |
| Erronkari | 2.621.625 | 2.870.792 | 249.167 |
| Guztira | 3.672.889 | 2.870.792 | 802.097 |

Bi udalerriotan jasotako gastuek instalazioak zaindu eta mantentzeari dagozkio, funtsean. 1997ko urritik aitzina, Erronkariko udalak langile bat kontratatu du, lanaldiaren zati baterako, ikastetxea garbitu dezan: 225.000 pezeta inguru izan da pertsona horren kostua, 1997an.

Erronkariko Udalaren dirusarrerak Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza bati dagozkio. Eskola-kontzentrazioagatik, eta eskolak emateko instalazioen funtzionamendua, zaintza eta garbiketagatik ematen da aipatu dirulaguntza. 1996ko dirulaguntzei dagozkien 929.970 pezeta kontabilizatu dira 1997ko ekitaldian, eta deskontatu egin ditugu azterlan hau egiteko.

## IV.2. GIZARTE ZERBITZUAK

Erronkari Ibarreko Batzarre Nagusiak hartu du bere gain Izabako osasun eskualde oinarrizkoaren gizarte zerbitzu oinarrizkoa; haren kostua ere du bereganatu du.

Hiru pertsonak ematen dute zerbitzua: gizarte langile batek eta bi familia-langilek (lanaldiaren erdia).

Lana egiteko garaian, bederatzi pertsonak jasotzen du etxez etxeko zerbitzuaren laguntza.

Batzarreko idazkaritzak emandako informazioaren arabera, 1997ko ekitaldiko gastuek 7.922.758 pezeta jo dute, eta langileen gastuei dagozkie. Dirusarrerak, alde batetik, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzei dagozkie, gizarte zerbitzu oinarrizkoa mantentzeko –3.092.962 pezeta-; eta, bestetik, etxez etxeko zerbitzuaren erabiltzaileen ordainketei –437.411 pezeta–, zerbitzuaren onuradunaren dirusarreren araberakoak baitira azken horiek.

## IV.3. HIRI HONDAKIN SOLIDOAK

Ezka-Zaraitzuko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean bildu dira Erronkari Ibarreko udalak hiri hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzua emateko.

Tarifa berberak erabiltzen dira udal guztietan, eta Mankomunitateak finkatzen ditu, establezimendu mota ezberdinen arabera.

Hiri hondakin solidoak edukiontzietatik biltzen dira, astean birritan, uztail-abuztuan izan ezik, astean hiru aldiz jasotzen baitira.

Hiri hondakin solidoak Aizpurgiko udalerriko hondakindegian uzten dira.

Udalek kobraketaren kudeaketa besterik ez dute egiten, eta beraien gain hartzen dute zergadunen berankortasuna.

Fakturazioa urtero egin ohi dute, Izaban eta Erronkarin salbu, seihilero egiten baitute.

Ondoren jarriko dugun laukian biltzen dira udal bakoitzaren ordainagiri-kopurua eta helbideratze-portzentaia.

| Udala | Zenbat ordainagiri | Helbideratze % |
|---|---|---|
| Burgi | 192 | %100 |
| Garde | 113 | %98 |
| Izaba | 438 | %100 |
| Erronkari | 188 | %88 |
| Urzainki | 72 | %90 |
| Uztarroze | 105 | %100 |
| Bidankoze | 73 | %100 |

Mankomunitateak erabakitzen du udal bakoitzak jarri behar duen dirua, horietako bakoitzean dauden etxebizitzen eta bestelako establezimenduen kopuruaren arabera.

Ondorengo laukian jarriko ditugu Udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak:

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Burgi | 1.878.069 | 1.933.932 | 55.863 |
| Garde | 1.076.460 | 1.081.080 | 4.620 |
| Izaba | 4.553.406 | 5.358.969 | 805.563 |
| Erronkari | 2.179.221 | 2.270.268 | 91.047 |
| Urzainki | 767.496 | 788.788 | 21.292 |
| Uztarroze | 1.345.344 | 1.345.344 | 0 |
| Bidankoze | 645.297 | 648.648 | 3.351 |
| Guztira | 12.445.293 | 13.427.029 | 981.736 |

Udaletan agertzen den gastuen eta dirusarreren arteko aldea erreziboen kobraketan gertatzen diren desfaseei zor zaie.

Likidazioetan jasotako gastua Mankomunitatearen funtzionamendurako aportazioei dagokie.

Uztarrozeko Udalaren 1997ko ekitaldiko likidazioan 1996ko kuoten gastuei dagozkien 1.258.308 pezeta jaso dira, eta deskontatu egin dira azterlan hau egiteko.

## IV.4. UR HORNIKETA

Banaka ematen du udal bakoitzak ur horniketaren zerbitzua.

Izaba, Urzainki eta Uztarrozeko udalek iturburuak dituzte, eta inongo arazorik gabe hornitzen dituzte urez beraien herriak, urte osoan zehar; beste udalek, aldiz, murrizketak eta hornidurararen kalitate-arazoak izaten dituzte idorte-sasoian.

Azken urteotan zehar, inbertsio-ahaleginean dihardute udalek ur-horniketaren eta saneamenduaren sareak egokitzeko.

Izabako Udalak badu hondakin-uren araztegia. NILSAk finantzatzen ditu araztegiaren ustiapen-kostuak: 490.284 pezeta izan dira 1997ko ekitaldian.

Horniketagatik eta saneamenduagatik kobratzen dituzten prezioak ez dira homogeneoak. Urari bagagozkio, Erronkarin, Uztarrozen, Urzainkin eta Bidankozen ez dago kontadorerik, eta zenbateko finkoak besterik ez dituzte kobratzen. Beste alde batetik, Garde, Izaba eta Uztarrozeko udaletan ez dute estolderiagatik batere kobratzen.

Ondorengo laukian agertuko ditugu prezioei, ordainagirien kopuruari eta helbideratze-portzentaiei buruzko datuak.

| Udala | Uraren batez besteko kostua (*) | Estolderia | Zenbat ordainagiri | Helbideratze % |
|---|---|---|---|---|
| Burgi | 4.470 | 300 | 204 | %100 |
| Garde | 4.750 | — | 111 | %99 |
| Izaba | 5.640 | — | 380 | %100 |
| Erronkari | 2.400 | 200 | 192 | %88 |
| Urzainki | 3.640 | 300 | 71 | %100 |
| Uztarroze | 2.500 | — | 105 | %100 |
| Bidankoze | 2.500 | 300 | 70 | %100 |

(*) Burgi, Garde eta Izabako uraren prezioa kalkulatzeko, etxebizitzako eta urteko 140 m³ko kontsumoa erabili da, eta Erronkarirako, etxebizitzako lau pertsona jo dira.

Urteroko ordainagiri baten bidez egiten da fakturazioa, Izaba eta Erronkariko udaletan salbu, seihilero likidatzen baitute.

Ondoren adieraziko ditugu udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak.

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Burgi | 586.683 | 775.954 | 189.271 |
| Garde | 11.020 | 363.156 | 352.136 |
| Izaba | 591.630 | 2.513.978 | 1.922.348 |
| Erronkari | 353.042 | 536.815 | 183.773 |
| Urzainki | 0 | 167.241 | 167.241 |
| Uztarroze | 643.057 | 377.176 | -265.881 |
| Bidankoze | 388.197 | 232.747 | -155.450 |
| Guztira | 2.573.629 | 4.967.067 | 2.393.438 |

Izabako Udalaren dirusarreretan kontabilizatu dira 760.822 pezeta, NILSAk araztegirako egin duen transferentzia bati dagozkionak; aurreko ekitaldietako kopuruak ere sartu dira horretan.

## IV.5. KIROLAK

Ondoko laukian jarriko ditugu Erronkari Ibarrean dauden kirol instalazioak:

| | Frontoia | | | Igerilekua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Entitatea | Estalia | Estaligabea | Kiroldegia | Arrunta | Ibaian | Beste batzuk |
| Burgi | — | — | — | — | X(1) | Futbol zelaia |
| Garde | X | — | — | X | — | — |
| Izaba | X | — | X | X | — | — |
| Erronkari | — | X | X | — | X | — |
| Urzainki | | X | — | — | — | — |
| Uztarroze | X | — | — | — | X | — |
| Bidankoze | | X | — | — | X | |
| Ibarreko Batzarrea | | | | | | Eski pistak |

(1) Gaur egun ez dira erabiltzen

Izabari bagagozkio, frontoi-kiroldegia dago, 1998ko uztailean zabaldu dena.

Ibarreko kirol arloko jarduketak Izabako Udalean bateratu dira, Ibarreko Kirolerako Udal Elkartzearen bidez.

Udalek kudeatzen dute kirolgintza, zuzenean kudeatu ere. Beste alde batetik, “Pirineos” Taldeak jarduketak garatu eta antolatzen ditu, hala nola, eski txapelketak, bide zidorretatik ibiltzea, ibilaldi neurtuak, eta abar.

Ondoren aurkezten dugun laukian ikus daitezke udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak:

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Burgi | 86.155 | 0 | - 86.155 |
| Garde | 205.900 | 260.606 | 54.706 |
| Izaba | 955.449 | 1.134.650 | 179.201 |
| Erronkari | 840.983 | 91.969 | - 749.014 |
| Uztarroze | 103.790 | 174.902 | 71.112 |
| Guztira | 2.192.277 | 1.662.127 | -530.150 |

Izabako Udalaren dirusarrerak igerilekuko sarrera eta abonoei dagozkie; Erronkariko gastuetan, berriz, 630.000 pezetako ohiz kanpoko konponketak sartu dira.

Eskiko pistak eta eskiarekin zerikusia duen jardueraren azpiegitura Ibarreko Batzarrearenak dira, eta ustiaketa partikular bati birkontratu zaio. 1997ko kanona 1.116.540 pta. izan da.

IV.6. KULTURA

Kulturaren kontzeptupean sartu dira turismoarekin, euskararekin, xeiekin, liburutegiekin eta kultur ekintzekin zerikusia dutenak.

Ibarra osatzen duten udal guztiak sartu dira Nafarroako Pirinioko Turismo Partzuergoan.

Turismo Mahai bat ere badago Erronkari Ibarrean. Aipatu mahaiak, udalekin, Ibarreko Batzarrearekin eta inguruko ostalariekin batera, garatzen du jarduketa-programa bat, Ibarreko turismoa sustatzeko.

Turismoak, sektore ekonomikotzat hartzen badugu, berebiziko garrantzia hartu du ibarreko ekonomian, azken urteotan; nabaria da ostatuegiturak eta landa-etxeak ugaritu egin direla.

Euskararen arloko jarduerak Erronkariko euskara arian-arian berreskuratzea du xede, eta Kebenko Kultur Taldearekin ari dira lankidetzan.

Herriko xeiek badute sustraia eta tradizioa, eta jende anitz erakartzen dute. Herrietako zaindarien xeiez gain, Hiru Behien Zerga eta Almadiaren Eguna aipa ditzakegu.

Izaba eta Erronkariko udalek badituzte liburutegirako lokalak. Izabakoa, gurasoen elkarteak kudeatzen du, eta Erronkarikoa Nafarroako Gobernuko Liburutegien Sarearen baitan dago.

Museoen azpiegitura handitu egin da 1998an, Museo etnografikoa eta Kulturetxea zabaldu baitituzte. Gaur egunera arte, Erronkarin bazeuden Naturaren Interpretazio Zentroa eta Julian Gayarreren Etxe Museoa, Julian Gayarre Fundazioak kudeatua, eta tenore ospetsuarekin zerikusia duten musika-jarduketak antolatzen ditu.

Ibarra osatzen duten udalek, bestalde, batera egiten dituzte eskariak, Nafarroako Gobernuak antolatzen dituen zirkuito ibiltarietan egiten diren ekitaldiak garatzeko.

Ondorengo laukian jarriko ditugu Udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak:

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Burgi | 1.856.494 | 799.925 | -1.056.569 |
| Garde | 4.574.647 | 1.178.98 | -3.395.658 |
| Izaba | 9.391.330 | 19.732.496 | 10.341.166 |
| Erronkari | 5.410.856 | 502.502 | -4.908.354 |
| Urzainki | 1.357.480 | 33.854 | -1.323.626 |
| Uztarroze | 1.195.675 | 266.600 | -929.075 |
| Bidankoze | 729.074 | 94.750 | -634.324 |
| Guztira | 24.515.556 | 22.609.116 | -1.906.440 |

Honela banakatu dira gastuak: xeiak, turismo partzuergoak ekarritakoa, eta gainerakoak barne hartzen dituen beste kontzeptu bat.

| Udala | Xeiak | Turismo partzuergoa | Beste batzuk | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Burgi | 1.387.038 | 129.558 | 339.898 | 1.856.494 |
| Garde | 2.489.294 | 148.712 | 1.936.641 | 4.574.647 |
| Izaba | 4.047.591 | 871.894 | 4.471.845 | 9.391.330 |
| Erronkari | 2.692.639 | 444.647 | 2.273.570 | 5.410.856 |
| Urzainki | 1.102.737 | 157.683 | 97.060 | 1.357.480 |
| Uztarroze | 776.996 | 273.026 | 145.653 | 1.195.675 |
| Bidankoze | 608.675 | 120.399 | 0 | 729.074 |
| Guztira | 13.104.970 | 2.145919 | 9.264.667 | 24.515.556 |

Izabako Udaleko dirusarrerak azpimarra daitezke, Asolazeko udal kanpinaren alokairutik heldu direnak, hain zuzen: 16.475.163 pezeta.

Gardeko Udalekoak ere aipatzekoak dira, 963.989 pezeta hartu baititu bere kanpina ustiatzetik.

IV.7. ESKIKO ESKOLA-KANPAINA

Izaba eta Otsagiko udalek eta Nafarroako Gobernuko Kirol eta Gazteriaren Institutuak hitzarmena izenpetu dute iraupen-eskiko eskola-kanpainak antolatzeko, Erronkari eta Zaraitzuko ibarretan.

Izabako Udalak hartu du bere gain eski-kanpainen antolamendua. Urte bakoitzeko urtarriletik apirilera bitartean egiten dira. Kanpaina honek badu eragina ibarreko ostatuen okupazioan.

Kanpainaren kudeaketak dakarren administrazio-lanen hazkundearen ondorioz, administrazio-laguntzaile bat kontratatu ohi dute, kanpainak dirauen bitartean. 959.788 pezeta izan da 1997ko kostua.

Lau mila partaide izan ditu kanpainak 1997an –83 ikastetxetatik etorri dira–. Goizez aritzen dira eskian, eta, arratsaldez, kultur eta kirol jarduketa osagarrietan dihardute.

1998ko kanpainarako partaideko kostua 23.600 pezetatan jarri da, hitzarmenaren arabera. Nafarroako Gobernuak 8.000 pezeta jartzen ditu, eta gainerakoa –15.600 pezeta–, partaideek ordaintzen dute.

Hona 1997ko ekitaldiari dagozkion gastu-dirusarreren zerrenda:

| Gastuak | Zenbatekoa |
|---|---|
| Garraioak | 12.082.824 |
| Administrazio laguntzailea kontratatzea | 959.788 |
| Monitoreen zerbitzuak | 18.336.500 |
| Eskiak konpondu eta berriak erostea | 4.244.056 |
| Pistak erabiltzea | 1.637.100 |
| Mantenua eta ostatuak | 52.595.550 |
| Jarduketak eta antolamendua | 8.644.727 |
| Guztira | 98.500.545 |

| Dirusarrerak | Zenbatekoa |
|---|---|
| Partaideen izenemateak | 60.539.300 |
| Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza | 35.825.000 |
| Korrituak, kontu korronteak | 692.745 |
| Guztira | 97.057.045 |

IV.8. INDARRETXEAK

Garden, Izaban eta Urzainkin badira udal indarretxeak, eta horietako bakoitza ustiatzeko modua ezberdina da. Gardek hirugarren bati laga dio ustiapena, “Explotaciones Agrícolas e Industriales, SA”ri, 2.017. urtera arte. Izabak energia sortu eta udaleko herritarrei banatzen die; soberakinik baldin badu, “Eléctricas Reunidas de Zaragoza, SA”ri saltzen dio, baita erosi ere, behar izanez gero. Urzainkik ekoizten duen guztia saltzen dio “Eléctricas Reunidas de Zaragoza, SA”ri.

Zerbitzu ekonomiko udalekotu baten bidez sortu eta banatzen du Izabako Udalak argindarra.

Ondoren jarriko dira Urzainkik eta Izabak ekoitzi, erosi eta fakturatu dituzten kilowattei buruz eskura ditugun datuak:

| Udala | Ekoitziak | Erosiak | ERZri fakturatuak | Herritarrei fakturatuak |
|---|---|---|---|---|
| Urzainki | 159.000 | — | 159.000 | — |
| Izaba | 2.251.820 | 568.000 | 635.000 | 1.274.767 |

Izaban, bi hilabetez behin fakturatzen zai herritarrei, eta 398 harpidedun daude.

Izabaren kasuan, halaber, hauxe azpimarratu behar da: ekoitzi direlako edo erosi direlako, eskuratu diren kilowatten %68 baino ez dutela egiten fakturatutakoak. Hauxe esan behar horri buruz: Udalak herriko argietan eta udal instalazioetan erabili dituenak ez direla fakturatzen.

Ondorengo laukian jarriko ditugu Udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak:

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Garde | 10.521 | 403.346 | 392.825 |
| Izaba | 27.053.709 | 41.665.859 | 14.612.150 |
| Urzainki | 659.538 | 2.638.499 | 1.978.961 |
| Guztira | 27.723.768 | 44.707.704 | 16.983.936 |

Izabaren kasuan, gastutzat hartu dira udal zerbitzuak egindako amortizazioak, 7.743.631 pezetatan; eta dirusarreratzat kapital-dirulaguntzen eskualdatzeak, 6.236.000 pezetatan.

Gardeko indarretxearen dirusarrerak ez dira aurrekontuaren likidazioan ageri, eta 1997ko kanonari dagozkio.

IV.9. MENDIAK

Erronkari Ibarreko udalek eta Ibarreko Batzarreak baso-aberastasun handia dute, eta oinarrizko finantza-iturria da entitate horientzako.

42.000 hektarea inguruko azalera du Erronkari Ibarrak. Honela banatzen dira, udalka:

| Udala | Hektareak |
|---|---|
| Burgi | 6.500 |
| Garde | 4.400 |
| Izaba | 14.800 |
| Erronkari | 3.900 |
| Urzainki | 2.100 |
| Uztarroze | 5.820 |
| Bidankoze | 3.920 |
| Guztira | 41.440 |

Ibarreko Batzarreak 15.000 hektarea inguruko jabetza du ibarreko udaletan.

Ondorengo laukian jarriko ditugu entitate bakoitzak likidaturiko gastu-dirusarrerak:

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Burgi | 232.352 | 3.688.785 | 3.456.433 |
| Garde | 168.520 | 12.851.654 | 12.683.134 |
| Izaba | 275.080 | 13.115.271 | 12.840.191 |
| Erronkari | 74.690 | 7.338.578 | 7.263.888 |
| Urzainki | 45.539 | 4.174.291 | 4.128.752 |
| Uztarroze | 109.858 | 4.249.029 | 4.139.171 |
| Bidankoze | 39.985 | 2.458.558 | 2.418.573 |
| Ibarreko Batzarrea | 4.843.940 | 15.384.907 | 10.540.967 |
| Guztira | 5.789.964 | 63.261.073 | 57.471.109 |

Zerbitzu honetan aintzat hartu diren dirusarrerak oihan-aprobetxamenduak kobratzetik datoz, funtsean, eta baita, belarretatik, ehiza-barrutietatik eta larreetatik.

Beste alde batetik, 1997an esleitu diren oihanloteei dagozkien kopuruak aurkeztuko ditugu; izan ere, aparteko samar izan omen zen urte hori, esan digutenez.

| Udala | Esleitutako loteak |
|---|---|
| Burgi | 12.530.976 |
| Garde | 18.543.460 |
| Izaba | 23.516.752 |
| Erronkari | 4.576.650 |
| Urzainki | 2.510.600 |
| Uztarroze | 2.840.000 |
| Bidankoze | 1.507.855 |
| Ibarreko Batzarrea | 51.607.594 |
| Guztira | 117.633.887 |

IV.10. EGITURA

Lan honen III. idazatian iruzkindu bezala, Egituratzat hartu ditugu tamanagatik edo edukiagatik banakatzeko interesik ez zutenak, eta baita zerbitzu orokor edo administraziokoak ere, baldin eta aztertutako zerbitzuen baitan sartu edo banatu ezinekoak badira.

Ondorioz, beraz, gainerako zerbitzuetan sartu ez den gastu guztia bilduko da egitura kontzeptupean.

Langileak izanen dira udaletako Egitura-zerbitzuaren osagarri nagusia: gastuaren %57 egiten baitu. Ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea da bigarren kapitulua, garrantziaren arabera: gastuaren %37.

Hona udaletako bakoitzean, egituratzat hartuta, zerbitzuan diharduten langileen zerrenda, 1997ko abenduaren 31ri buruzkoa:

**Burgi**

• Idazkaria (funtzionarioa), Garden eta Bidankozen ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea, lan kontratukoa, lanaldiaren zati baterako (%50).

• Gizarte-enplegu babestuko langilea, aldi baterako.

**Garde**

• Idazkaria (funtzionarioa), Burgin eta Bidankozen ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea, lan kontratukoa.

**Izaba**

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Uztarrozen ere ari da.

• Ofizial administraria, funtzionarioa

• Zerbitzuen arduraduna, funtzionarioa

**Erronkari**

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Urzainkin ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea, funtzionarioa.

**Urzainki**

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Erronkarin ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea, lan kontratuko finkoa, lanaldiaren zati baterako (%50).

**Uztarroze**

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Izaban ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea, aldi baterako lan kontratukoa.

**Bidankoze**

• Idazkaria (funtzionarioa), Burgin eta Garden ere ari da.

**Erronkariko Batzarreak**

• Idazkaria (lan kontratukoa)

Izabako Udalak badu suhiltzaileen parke bat, 1997tik, eta Erronkari Ibar osoan ari da. Izabako 23 lagun ari dira suhiltzaile-zereginetan, bolondres aritu ere.

Ibarreko eskualde-hiltegia Erronkarin dago, eta berrikuntzak egin dituzte 1997an Europako Batasuneko arauei egokitzeko.

Erronkari Ibarreko udaletan sortzen diren hirigintza-beharrizanei erantzuteko, kanpoko aholkulariak kontratatzen dira, sortzen den lanaren arabera.

Azpimarratzekoa da idazkari bera udal batzuetan ari denean, gastu hori langile-gastutzat hartzen dela horietako batean eta transferentziatzat besteetan. Azterketa honen ondorioetarako, langastutzat egotzi zaio bere zatia udal bakoitzari. Hona egindako birsailkapenak:

| Udala | Zenbatekoa |
|---|---:|
| Burgi | -2.743.518 |
| Garde | 1.734.108 |
| Izaba | -1.757.575 |
| Erronkari | -1.188.174 |
| Urzainki | 1.188.174 |
| Uztarroze | 1.757.575 |
| Bidankoze | 1.009.410 |
| Guztira | 0 |

Ondoren azalduko dira egitura-gastuak, kontzeptu ekonomikoka:

| Udala | Langileen gastuak | Ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostea | Finantza-gastuak | Ohiko transferentziak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Burgi | 5.462.026 | 3.038.340 | 244.133 | 386.886 | 9.131.385 |
| Garde | 5.578.594 | 3.274.539 | 0 | 137.617 | 8.990.750 |
| Izaba | 14.019.050 | 7.538.256 | 2.352.361 | 1.397.480 | 25.307.147 |
| Erronkari | 11.683.452 | 3.512.319 | 0 | 197.308 | 15.393.079 |
| Urzainki | 3.227.432 | 1.708.907 | 0 | 80.630 | 5.016.969 |
| Uztarroze | 5.605.375 | 3.448.124 | 6.454 | 160.303 | 9.220.256 |
| Bidankoze | 1.621.065 | 2.459.696 | 0 | 40.979 | 4.121.740 |
| Ibarreko Batzarrea | 6.520.341 | 11.075.666 | 0 | 1.281.969 | 18.877.976 |
| Guztira | 53.717.335 | 36.055.847 | 2.602.948 | 3.683.172 | 96.059.302 |
| Guztizkoaren gaineko % | %55,92 | %37,53 | %2,71 | %3,83 | %100 |

Beste alde batetik, azterturiko zerbitzuetan kontuan hartu ez diren ohiko dirusarrerak erakutsiko ditu ondorengo laukiak, kontzeptuka eta entitateka:

| | Burgi | Garde | Izaba | Erronkari | Urzainki | Uztarroze | Bidankoze | Ibarreko Batzarrea | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zerga | 5.584.038 | 2.591.765 | 10.236.443 | 6.572.202 | 1.868.700 | 3.699.321 | 1.633.316 | 0 | 32.185.785 |
| Bestelako tasak eta dirusarrerak | 522.726 | 376.411 | 6.694.164 | 2.523.700 | 463.214 | 738.895 | 1.021.012 | 0 | 12.340.122 |
| Nafarroako zergetan parte hartzea | 4.934.720 | 3.759.768 | 13.276.963 | 10.213.688 | 2.087.803 | 5.827.684 | 2.176.826 | 0 | 42.277.452 |
| Bestelako transferentziak | 1.728.720 | 1.138.914 | 5.310.936 | 2.835.172 | 715.468 | 1.491.371 | 746.225 | 0 | 13.966.806 |
| Bestelako ondare-dirusarrerak | 855.492 | 2.956.565 | 3.302.197 | 1.349.482 | 1.131.473 | 568.447 | 610.508 | 1.647.810 | 12.421.974 |
| Bestelako dirusarrerak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3.121.516 | 3.121.516 |
| Guztira | 13.625.696 | 10.823.423 | 38.820.703 | 23.494.244 | 6.266.658 | 12.325.718 | 6.187.887 | 4.769.326 | 116.313.655 |

## V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Idazati honetan jarriko ditugu azterlanetik heldu diren ondorio eta gomendio nagusiak. Haiekin batera, toki sektore publikoan garatzen ari diren egoeraren eta joeren azterketa estrategikotik sortu direnak. Hori guztia, noski, burutu dugun azterlanaren norainokoa eta mugak kontuan izanda.

Zerikusia duten alderdi guztiek aztertu, hausnartu eta irizkidetzekoak dira ondoren azalduko ditugun gomendioak; ondorioz, eskura dauden baliabideen araberako lehentasunak ezarri behar dira aurretik, eta auzoen jarrera ere aintzat hartu, orobat Ibarra osatzen duten toki entitateen erabakiak. Hori guztia, jakina, tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa hobea lortzeko asmoarekin, kalitatekostu koordenatuen barruan emateko zerbitzuak.

**1go.** Erronkari Ibarraren antolamenduzko egitura politikoak –1.872 biztanle dira, zazpi udaletan eta ohiko elkarte batean banatuak– baldintzatu egiten du zerbitzuen eskaintza, biztanleak gutxi direlako, eta azalera handia delako –412 $km^2$–, orografia berezi baten baitan.

**2gn.** Gaur egun, aurreko toki entitateek ematen dituzten zerbitzuek 281 milioiko gastua egiten dute, hau da, 150.000 PTA inguru, Ibarreko biztanle bakoitzeko.

Gastu horretatik, 96 milioi egitura-gastuak finantzatzeko dira –alegia, ehuneko 34–. Hurrengoei dagokie, funtsean, gastu hori: Administrazioko langileei –22 milioi–, bestelako langileei –32 milioi–, eta ohiko ondasun eta zerbitzuetako gastuei –36 milioi–.

Aztertu ditugun gainerako zerbitzuen gastua 185 milioi da –hau da, gastu guztiaren ehuneko 66–. Ondoren zehaztuko ditugu, milioika eta portzentaika:

| Zerbitzua | Zenbat | Portzentaia |
|---|---|---|
| Hezkuntza | 4 | 2 |
| Gizarte Zerbitzuak | 8 | 4 |
| Hiri hondakin solidoak | 12 | 7 |
| Ur hornidura | 3 | 2 |
| Kirolak | 2 | 1 |
| Kultura | 24 | 13 |
| Eski kanpaina | 98 | 53 |
| Argindarra | 28 | 15 |
| Mendiak | 6 | 3 |
| Guztira | 185 | 100% |

Ikus daitekeenez, aztertutako gastuaren ia-ia ehuneko 81 azaltzen dute eski-kanpainak, kulturak eta mendiak mantentzeak.

**3gn.** Aurreko gastuak, aurrekontuen arabera beti ere, 370 milioiko dirusarrerekin finantzatu dira: per capita 1970.000 PTA inguru.

Egindako gastuekin konparatuz gero, 89 milioiko finantzaketa-soberakina ateratzen da.

Kontuan hartzen bada egin dugun zerbitzumailaketa, egiturazkoek 116 milioi dira, eta gainerakoek 254 milioi.

**4gn.** Administrazio-alorreko egitura-gastuak testuinguru egokian kokatzeko asmoz, hurrengo laukian jasoko dugu alor horretan dauden langileen kopurua, bai Ibarreko entitateetan, bai antzeko neurria duten toki entitate bakunetan. Baztan Ibarra ere sartu dugu konparazio horretan; izan ere, biztanle gehiago izan arren, antzeko egitura geografiko barreiatua du, antolamendu politikoa arras diferentekoa bada ere, toki entitate bakarra baitago ibar osorako.

| Erreferentzia | Baztan Ibarra | Ablitas | Agoitz | Erronkari Ibarra | Olazti | Irunberri |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Biztanleak | 7.806 | 2.231 | 1.848 | 1.872 | 1.622 | 1.419 |
| Azalera $km^2$ | 376,8 | 77,4 | 13,2 | 412,2 | 19,6 | 56,9 |
| Gastuak (milioitan) | 768(2) | 173 (1) | 174 (2) | 281 (2) | 204 (1) | 173 (2) |
| Idazkariak | 1 | 1 | 1 | 4 | 1 | 1 |
| Ekonomistak/kontuhartzaileak | 1 | – | – | – | 1 | – |
| Ofizial adm. | 4 | 1 | – | 1 | 1 | 1 |
| Adm. laguntzailea | 1 | 1 | 2 | – | – | 1 |
| Zerbitzu anitzak | 1 | 2 | 1 | 3 | 1 | 1 |
| Adm.ko langileak, guztira | 8 | 5 | 4 | 8 | 4 | 4 |
| Adm.ko langileen kostua, biztanleko (pezetatan) (3) | 2.385 | 5.000 | 4.800 | 11.000 | 6.600 | 6.600 |
| Langileak $km^2$ko | 0,02 | 0,06 | 0,3 | 0,02 | 0,2 | 0,07 |
| 100 biztanleko zenbat langile | 0,10 | 0,22 | 0,22 | 0.43 | 0,25 | 0,28 |

(1) 1996koak
(2) 1997koak
(3) mailako soldataren arabera finkaturiko kostuak

Datu horiek aztertu, eta, konparazioaren mugak muga, hurrengoak azpimarratuko ditugu:

• Ibarreko administrazio-langileak gainerako toki entitate bakunena halako bi dira, ia-ia, eta toki entitate bakunetako langileen kopurua antzekoa da. Hala ere, Baztan Ibarreko langile-kopuruarekin –ez egiturarekin– bat datoz, Baztan Ibarreko biztanleak Erronkarikoak halako lau badira ere, ia-ia. Joera bera erakusten du 100 biztanleko langile kopuruaren ratioak.

• Joera bera antzeman daiteke administrazio-langileen biztanleko kostuan; izan ere, Ibarreko ratioaren balioa gainerako entitate bakunena halako bi baita. Baztanekin konparatuz gero, Baztangoa halako bost da Erronkari Ibarrekoa.

• Erronkari eta Baztango egituren funtsezko aldeak hauexek dira: Erronkarik 4 idazkari ditu, Baztanek 1; Erronkarik ofizial administrari bat du, Baztanek 4. Km$^2$ko langileen erratioa bat dator bi ibarretan, eta konparatu diren gainerako entitateena baino txikiagoa da.

Laburbilduz, hurrengoetan gauzatzen da Ibarraren berezitasuna, funtsean:

. Idazkari-lanpostuetan, zortzi toki entitate baitago.

. Administrazioko langileetan, halako langile bakarra baitago.

. Aurreko egoeraren ondorioz, idazkariak denbora asko eman behar du administrazio-beharrizanetan eta jendeari arreta egiten.

Laburbilduz, Ibarraren azalera handiak, orografia bereziak eta egungo antolaketa politikoak –zortzi toki-entitate baititu– ehun biztanleko langile ratioa eta biztanleko kostua handiagoak izatea dakarte; aldi berean, idazkarien lanpostuek zeresan handia dute plantiletan, egungo arauek eskatzen duten ildotik.

**5gn.** Egungo baldintzetan, Ibarreko udal guztiek banaka ematen dituzte zerbitzu publikoak, oro har. Salbuespenak badira, ordea:

• Gizarte zerbitzu oinarrizkoak, Ibarreko Batzarreak kudeatzen baititu

• Turismoa, Nafarroako Pirinioko Turismo Partzuergoak ematen baitu

• Hiri hondakin solidoak bildu eta tratatzea, Ezka-Zaraitzuko Mankomunitatearen esku. (1)

• Suhiltzaileak, Izabako Udalak ematen baitu ibar osorako.

• Herri mendien aprobetxamendua, Ibarreko Batzarrearen esku.

• Hiltegia, Erronkariko Ibarrak ematen baitu ibar osorako.

• Idazkaritza eta kontabilitate lanak: lau idazkarik egiten dituzte.

**6gn.** Gure iritzirako, eta aurreko ondorioak ikusita, egoki litzateke entitate bakarrean biltzea zerbitzuak emateko kudeaketa. Hurrengoak aipa ditzakegu hori zuzenesteko:

• Ibarrean bada ohiko elkarte bat, gutxieneko egitura administratiboa duena: Ibarreko Batzarrea.

• Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak ere horretarako bide ematen du; izan ere, bere 30.3 artikuluak ezarri duenaren arabera, ohiko elkarteen baitako udalek aipatu elkarteen esku utz dezakete zerbitzuak emateko edo jarduerak burutzeko eskumenen erabilpena.

• Zerbitzuak emateko egungo banaketak, non mota eta izaera orotako entitateak pilatzen diren (udalak, ohiko elkartea, partzuergoa, mankomunitatea eta zerbitzu udalekotua), ez du adierazten zerbitzuak modu arrazionalean ematen direnik.

• Begibistakoa denez, funtsezko zerbitzuei gero eta kalitate handiagoa eskatzeko joera dago.

Hala ere, Batzarreaz besteko unitate administratiboa sortzeko aukera ere azter daiteke: arian-arian eskuratuko lituzke eskumenak, ohiko elkarte bati dagozkionak utzirik Batzarreari.

Azkenik, gure ustez, bateratze horrek ez luke zerbitzuak emateko kostuaren murrizketa nabarmenik ekarriko, epe laburrean bederen; bai, ordea, zerbitzuen egitura arrazoizkoagoa, kalitatea hobetuko lukeena.

**7gn.** Arian-arian bereganatu beharko dituzte eskumenak Ibarreko Batzarreak edo bestelako administrazio-unitateak; izan ere, giza- eta gauza-baliabideen beharrizanak finkatu beharko dira aurretik, egun daudenekin konparatu, eta ezarpen-egutegia erabaki.

Gure ustez, lehen fasean, administrazio- eta kontabilitate-zereginak bateratu behar dira (idazkaritza, kontuhartzailetza, diruzaintza, ordainarazpenak eta errentak, derrigorrezko dirubilketa ...). Giza-baliabideei eta baliabide informatikoei buruz-

*(1) Dagokien tarifen kobraketa udal bakoitzak egiten du.*

ko aurreikuspenak eskatuko lituzke bateratze horrek.

Hurrengo faseetan, aldiz, egun banaka ematen diren zerbitzuen kudeaketa bateratuari ekin beharko litzaioke. Hurrengoak azpimarratuko ditugu, duten garrantziarengatik:

• Uraren kudeaketa integrala, hiru faseak, alegia: alta, banaketa eta saneamendua.

• Oihan aprobetxamenduen kudeaketa, baliabideak udal bakoitzari atxikitzearen kaltetan gabe.

• Argindarra sortu eta banatzea, ezin baita ahaztu azaroaren 27ko 54/1997 Legeak, Sektore Elektrikoa arautzen duenak, zera exijitzen duela, hots, argindarra banatzen dutenak merkataritza-sozietate izatea, alde batetik; eta, bestetik, argindarra sortu eta banatzeko zerbitzuak elkarrekin zerikusirik ez duten enpresek bereiz kudeatzea.

• Hirigintza. VIII. eskualdean –Agoitzen– zaharberritze eta aholkularitza bulegoa jartzeko azterketa egiten ari badira ere, aholkularitza bederen bateratzea aztertu beharko litzateke.

Prozesu honek ez du esan nahi egungo udaletan biztanleei arretarik eginen ez zaienik bai langileen bidez, bai komunikazio-sistema berrien bitartez.

Funtsean, eta azken laburpen gisa, Ibarra osatzen duten toki entitateek biztanle gutxi izateak, azalera geografikoa handiak, mendi-ingurutzat jota egoteak eta egungo antolaketa politikoak, zerbitzuak emateko egiturekin batera, zera exijitzen dute: zerbitzu publikoen kudeaketa entitate bakarrean bateratzea, egitura arrazoizkoago bat lortzeko, zeinak zerbitzuak emateko kostuak egokituko dituen eta zerbitzuen kalitatea hobetuko duen.

Gure ustez, Ibarreko Batzarreak beregana dezake aipatu zeregina, tradizioa eta gutxieneko egitura administratiboa badituelako. Hala ere, beste aukera batzuk ere ez dira baztertzen, Batzarreari ohiko eskumenak bakarrik uzteko.

Abiapuntutzat hartzen baditugu, alde batetik, Ibarreko biztanleen eta udalen asentamendua, eta, bestetik, udal bakoitzaren ohiko eskubideak zaintzea, hauexek beharko lirateke, funtsean, aipatu bateratzerako:

• Giza-baliabideei buruzko azterketa egitea, egun dauden langileak abiapuntutzat hartuta, baina beharrizan berriak eta lanpostu jakin batzuk birmoldatzeko aukera baztertu gabe.

• Behar diren gauza-baliabideak aztertzea, ofimatikari buruzkoak, batez ere.

• Eskumenak bateratzeko egutegia edo lehentasunak ezartzea. Administrazio-, ekonomia- eta kontabilitate-zereginak zertuko dira lehenbizi; gainerako zerbitzuak gero, arian-arian.

Bateratze prozesuaren zabaltasunak eta zailtasunak, noski, Nafarroako Gobernuaren lankidetza eta aholkularitza galdatzen du. Ildo horretatik, zera aipatu behar da: Toki Administrazioko Departamentuak berrikitan deitu duen lehiaketa bat, zeinaren bitartez Foru Komunitateko eskualde batzuetako idazkaritza- eta kontuhartzailetza-zereginak bateratzea aztertuko den. Erronkari Ibarra ere aztertuko dute.

Azkenik, Ganbara honek uste du, aipatu prozesuaren zailtasunak zailtasun, bateratzearen zuzeneko abantailak handiak izanen direla biztanleentzako, bai finantza-aurrezpenarengatik, bai zerbitzuaren kalitatearen aldetik: Erronkari Ibarreko ongizate-maila hazi egingo litzateke.

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko abenduan

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

| HARPIDETZAREN PREZIOA<br>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA |
| --- | --- |
| Urte bat ........ 6.000 pta.<br>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ........ 140 » .<br>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ........ 175 » . | **NAFARROAKO PARLAMENTUA**<br>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»<br>Arrieta 12, 3<br>31002 IRUÑA |

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A.—Artika (Nafarroa). Lege Gordailua: NA—363-1995

Paper ekologiko birziklatua